



ttiipi-ttapa



2015eko irailaren 3a | XXXV. urtea | 645. zenbakia

erran.eus

Herriko bestak →

Arraioz, Elbete, Eratsun, Oiz eta Sara

IGANTZI → 16

XXV. Mendi Bizikleta ibilaldia irailaren 6an

ARESO → 29

VIII. Mendi Martxa irailaren 6an

AMAIUR → 34

Gazteluaren neurriak eta ezaugarriak agertu dituzte

LAXOA → 44

Aurtengoarekin, Iruritat 10 aldiz jantzi du txapela

Rosa Belzunegi psikoanalistaren eta **Diana Iniesta** psikologoaren iritziz, mugak eta arauak argi zehaztea «beharrezkoak» dira seme-alaben heziketan. Zigorrak, ordea, «muturreko baliabide» gisa ikusten dute, «gainerako estrategiek huts egiten dutenean. Aditu hauek ez dira zigor fisikoen aldekoak.

ERREPORTAJEA → 4-5



SEME-ALABEN HEZIKETA



Lanaldia murrizteko espedientea

Lantegiaren arduradunek adierazi dutenez, Alkerdiko harrobian leherketak egiteko debekua kentzen ez bazaie, lantegia ixtea bertze erremediorik ez dute izanen. → 31

ELKARRIZKETA → 3

Askapenako bertze sei kiderekin batera, epaiketaren zain dago **Unai Vazquez**. Urriaren 19tik azaroaren 2ra izanen da hori. ETaren nazioarteko frontea osatu izana leporatzen die fiskaltzak.

ZOZKETAK → 52



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra**

Hizkuntzak elkarrekin ikastearen xarma



Rakotz Brücke, Alemania

INGELES, FRANTSES, TXINERA ETA ALEMANEKO IKASTAROAK


- Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat ikastaroak
- Ordutegi malgua, astelehenetik larunbatera
- Sorterriko irakasleak
- Talde mugatuak (9 ikasle gehinez)
- Ikastaro estandarrak, trinkoak, klase pribatuak
- Enpresentzat ikastaroak eta online ikastaroak. Itzulpen zerbitzuak
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Ikastaroak atzerrian

2015-16 kurtsoaren hasiera: **2015/09/14**

2015/09/11 baino lehen izena emanez gero, **MATRIKULA DOHAINIK!**



Koskontako bidea, 11 behe - LESAKA Tel. 948 637 135 ePosta. info@acornlanguages.com web. www.acornlanguages.com



BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

Lesakako Matxinbeltzanean

Tel. 948 637 796

bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

Donezteben, Rosa Seminario, 6

Tel. 948 451 555

malerreka@ikaeuskaltegiak.eus



www.ikaeuskaltegiak.eus

**Matrikula zaitetz
irailaren 30a baino lehen**

Unai Vazquez 1987an sortu zen Askapenako, euskal erakunde internazionala, kidea da. 2010eko irailean ETaren nazioarteko frontea osatzea leporatuta –bertze sei kiderekin bate-

ra– atxilotu ondotik, sei hilabete eman zituen gartzelan. Bortz urteren buruan, epaiketaren zain daude. Bitartean, «mehatxu, diru kontu enbargatu... artean aurretzea zaila bada ere,

udan elkartasun brigadak egin dira Argentinan, Mexikon, Venezuelan, Palestinan... eta irailean herri epaiketak eginen dira, urriaren 12an, Iruñako herri epaian, isla izanen dutenak».

Unai VAZQUEZ | Askapena erakundeko kidea

«Gizarte aldaketari ekarpena eginez gero balio du sakrifizio pertsonalak»

N. BAZTERRIKA | LESAKA

Zer da Askapena?

80ko hamarkadako internazionalismoaren baitan, bereziki Kuba eta Nikaraguako Sandinistekiko elkartasuna erakutsi nahian, Euskal Herrian 1987an jaiotako erakunde internazionala da. Gure erroa herritik herrirako elkartasuna da. Ez dugu bide bakarrekiko solidaritatean, emalahartzaile eskeman, sinesten. Elkartasuna dugu ardatz, munduak arazo estrukturala duelako. Lehenengo, hirugarren edo laugarren mundukook arazo iguala dugu, erabakitze eskubideetik, ekonomikoki zein sozialki garatzeko aukeratik, desjabetuak gara. Herrien alde egiten dugu, estatuen edo transnazionalen inperialismoaren kontra; «Hamai-ka herri, borroka bakarra» lelopean.

ETAren nazioarteko frontea osatzeagatik atxilotu zizuten...

Garai hartan Barakaldon bizi nintzen. 2010eko irailaren 28an izan zen, 01:30ak aldera. Ontziak garbitzen ari nintzen, lagun batzuk etorri zirelako afaltzera. Bat-batean, leihoetan eta atean joka hasi ziren «Unai abre... policia!» garrasika. Arietearekin atea botatzen hasi ziren. Gura-soei deitu eta mobila argazki baten atzean ezkutatze denboran izan nu-



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Gizarte Langilea, soziologoa eta Nazioarteko Harremanetan aditua da Unai Vazquez.

en, norbait jakinaren gainean egoteko. 50 bat polizi nazional, aurpegia estalita, telebista kamarak, argazkilariak... agertu ziren. Eskaileretan lurrera bota, bilurrak ipini eta beren botekin gainetik pasa zitzaizkidan. Luze egon nintzen buruz beheiti ezin arnastu. Bitartean poliziak gela guztietatik ibili ziren dena hantza gora ipintzen, idazkari judizialik gabe (beranduago agertu zen), mehatxupean... 3 egun egon ginen isolatuak, 7 lagun, horietatik 5 kartzelaratu gintuzten. Harri-garriena, Aranjuezen kartzelaratuetariko 15 euskaldunon artean, torturatua izan ez zen bakarra ni nintzela da. 6 hilabe-

PALESTINOA ETA LONA

«Palestino naranjak HERRIAK LIBRE dinamikaren oinarriak biltzen ditu: epaiketen aurkako kolorea, praktika internazionalista eta herri langile eta zapalduaren borrokarako konpromisoa. Oinetakoak, aldi, Espainiar Estatuarekiko nazka adierazten du».

tetara, 60.000 euroko fidantzepean eta egunero epaitegian sinatuz, ateratzeko aukera jarri ziguten. **Isun ekonomikoa eta sei urteko kartzelara-**

tzeta eskatzen dute Askapenako kideentzat...

Fiskalaren aldetik, akusazio partikularrak (*Manos limpias* bezalako taldeek) 10 urte eskatzen dituzte; baita erabateko gaitasungabetzea eta Bilboko konpartsetako kide den Askapeña eta bidezko merkataritzako kooperatiben legez kanporatzea ere. Orain herri mugimenduetako erakundeak desagerrarazi nahi dituzte. Akusazioak gure jardun publikoan oinarritzen dira: Israelen kontrako mundu mailako boikot, desinbertsio edo zigor kanpaina sustatzean; elkartasun brigadak (beste herrialde eta prozesuak ezagutzeko egiten diren bidaiak) egi-

tean; eta jardunaldi internazionalistak antolatzean. Hori delitua al da? Gure lanaz arto gaude. Bizitza baldintzatzen badu ere, jendearen elkartasunak laguntzen du hori eramaten. Askapenako militanteak egin ginen gure ttikitasunetik mundua aldatzeko. Beraz sakrifizio pertsonalak balio du munduaren aldaketari ekarpena eginez gero. **Bortz urteren buruan epaiketaren zain zaudete...**

Urriaren 19tik azaroaren 2ra izango da. Ez dakigu zer gertatuko den; epaiketa politikoei interes politikoen baitan dute ebazpena. Estatu bera Giza Eskubideen, Eskubide zibil eta politikoen kontra egiten duen eragile nagusia den heinean, Estatu espainolak ez du zilegitasunik gu epaitzeko: Euskal Herrian autodeterminazio eskubidea urratuz, torturaren bidez edo guda zikinaren bidez; eta nazioartean Latino Amerikako sarraskitik hasita, gaur egun transnazionalen bidez egindako expolioraino duen paperagatik. Estatu bera epaituko dugu, *Herriak libre* dinamikaren baitan, palestino naranja gainean eta lonak eskutan, estatuen kontrako herri epaiketak eginen dira irailean Euskal Herrian, tartean, Lesaka, Elizondo eta Leitzaan.

GIZARTEA → ZIGOR FISIKOAK HAURRENGAN

Haurrei jotzea onerako ala kalterako da?

Seme-alaben heziketan zigor fisikoak beharrezkoak diren ala ez galdetu diegu adituei

Aspaldikoa da eztabaida, baina gaur egun ere gaia mahai gainean dago. Batzuek haurrei jotzea heziketaren parte dela uste dute, eta bertzeek argi dute jotzeak ez duela hezteko balio. Adituak ez dira zigor fisikoen aldekoak.

G. PIKABEA

Ama edo aita seme edo alabari belarrondoko bat edo ipurdiko bat ematen ikustea ez zaigu hain arrotza egiten, ezta «garaiz emandako zartako bat» edo «ipurdiko on bat» esaldiak aditzea ere. Gaiak, ordea, eztabaida sortzen du, batzuek haurrei jotzea heziketaren parte dela uste dute; bertzeek, aldiz, argi dute kalterako baino ez dela.

Adituak ez dira zigor fisikoen aldekoak. Diana Iniesta Erratzuko psikologoak dio zigor fisikoa «ez dela emankorra» eta haurraren «jarrera erreaktiboak» sortzen dituela. «Zigorra erabiltzeak helduak haurrekin harremanak kudeatzeko ezintasuna duela adierazten du. Jotzea indarkeriaren sinonimoa da eta indarkeria pertsona batek bertzearekiko duen boterarensinonimoa. Honek zuzentasunik gabeko eta mendekotasun harremanak sortzen ditu».

Rosa Belzunegi Elizondoko psikoanalistak ere ez du begi onez ikusten heziketan zigor fisikoak erabiltzea. Hori bai, «garrantzitsua» iruditzen zaio «jotzea ohikoa den egoera edota gurasoen

estres unerren batean ipurdian zartako bat ematen denekoa» bereiztea.

JOTZEAREN ONDORIOAK

Haurrei jotzeak ondorioak dituela uste dute. Belzunegirentzat «zigor fisikoak ez du ez konpontzen, ez erakusten ere, eta etorkizuneko arazoei aurre egiteko tresnarik ere ez du ematen». Are gehiago, «zigor fisikoak jasotzen dituen haurrak indarkeria bere arazoak konpontzeko bidea dela pentsa dezake». Zigor fisikoa erabiliz, «haurrak egin duena zergatik dagoen gaizki ez ulertzeko arriskua dagoela» erran digu: «batzuetan, zigorrik ez jasotzeko egindakoa ez du errepikatuko, baina etorkizunean izanen dituen arazoak konpontzeko tresnarik ez du lortuko. Zigorrari kasurik egin gabe, baliteke haurraren kizuna errepikatzea, baina probakazio une horiek haurraren antsietate unerren batean egindakoak diren desberdintzen jakin behar da, ez dakielako bertzela adierazten».

Iniesta ere zigor fisikoen ondorioez aritu zaigu: «zigortuaren aldetik sumisioa eta menpekotasuna adierazten ditu, eta



Adituak ez dira zigor fisikoen aldekoak, ahal den neurrian arazoa solastuz konpontzea aholkatzen dute.

haurrak egokia ez den nortasuna eraiki dezake, erantzun erreaktibo edota suntsitzaileak sortuz, bai norbere buruarekin edo bai inguruarekin ere. Jarrera desegokiak ikusiko ditugu inguruko beharrei erantzun behar dienean: eskolan, gurasoekin, lagunekin, beraien buruarekin... Isolamendura ere jo dezake edo jarrera bortitzak

GURASOEI AHOLKUA

«Gure ustez behar dutena gehiago ematen diegu, eta benetan behar dutena guttiago: arreta eta denbora»

Diana INIESTA
Psikologoa, Erratzu

MUGAK ETA ARAUAK

«Haurrei eskatutako guztia emanez gero, frustrazioa onartzen ez duten ume bilaka daitezke»

Rosa BELZUNEGI
Psikoanalista, Elizondo

hartu: loan, arretan, elikaduran, drogekin... nahasteak edukiz».

Haurrak hezitzeko «makiltxo magikorik» ez dago Belzunegiren arabera: «heziketaz liburuak idazten dira, eta hezitzailerak adituek beraien teoriak dituzte, baina lege orokor bat egiteko ez da nahikoa. Seme-alaba bakoitza desberdina da eta batentzat balio duenak ez du balio bertzearentzat. Bakoitzak ama edo aita izateko bere modua eraiki behar du».

Erratzuko psikologoak haurre garrantzitzuen mimetismoarekin ikasten dutela azaldu digu, etxean ikusitakotik. «Hezitzeko modurik egokiena koherentea izatea da, egin, sentitu eta erraten denaren artean distantzia ttikia dagoen ingurua eskainiz». Zuzentasunaren garrantziaz ere aritu zaigu: «haurra sentibera eta gurasoen menpekobada, haur orekatua, segurua eta emozio aldetik osasuntsua bilakatzeko lan egin behar dugu».

MUGAK ETA ARAUAK BAI

Belzunegik ez du lantzarik: «zigor fisikoak ez dira beharrezkoak». Onartu digu, baina, zigor mota batzuk «play, sakelekoa edo ordenagailurik gabe uztea...», adibidez, ez direla kaltegarriak. Gurasoentzako baliabide bat izan daitezke, hitzak kale egiten duenean». Bere irudiko, «hitzak porrotik ez egitea da kontua, eta zigorrak ahalik eta guttienez erabiltzea».

Iniestak ere «gainerako estrategiek huts egiten dutenean, zigorra muturreko baliabide bezala erabil daitekeela» dio. Haurre, «jarrera ez denean egokia, mehatxatzea baino sariak edo onurak kentzea hobe dela», gaineratu digu. «Helbururik gabe, haurra ez da saritu behar eta haurrari eskubideak eta betebeharrak dituela erakutsi behar zaio. Horrela, haurrari bere inpulsoak erregulatzen lagunduko diogu, bere autoerreginkortasuna, erantzukizuna eta autonomia garrantzitsuak dezan eta norbere ja-

rrerak ondorioak dituela ikasiko du».

Haurri gustuko duen hori kentzea mugak jartzeko modutzat ikusten du Belzunegik. «Eratu» garbi du mugak eta arauak heziketan «beharrezkoak» direla: «haurrak zerbait nahi duenean segituan nahi du. Baina garrantzitsua da batzuetan esperoan egon behar dela eta eskatzen duena ez dela posible ikastea». Eskatutako guztia eman ez, «frustrazioa onartzen ez duen ume» bilaka daitekeela uste du: «aldiz, eskaerak erantzunik ez duenean, momentuan frustrazioa sortu arren, berte aterabideak bilatu edo sormena lantzeko aukera sortzen da».

Iniestak ere mugak eta arauak «ezinbertzekoak» direla erran digu: «beraiztat eta bertzeentzat ona eta txarra dena bereizteko balioko dioten baloreetan oinarritutakoak izan behar dute. Ahal den neurrian haurrei muga eta arau horien zergatia azaldu behar zaie. Zergatik errespetatu ordutegiak, zergatik egin eskolako eta etxeko lanak, berdinekin, gurasoe-

GURASOEK GEHEGI BABESTEN DITUZTE HAURRAK?

- **Rosa BELZUNEGI:** Lehen gurasoek autoritatea erabiltzen zuten haurrak hezitzeko. Gaur egun, aldiz, elkarrizketa gehiago erabiltzen da, baina aldi berean, haurrak gehiegi babesteko joera dago. Zenbait gurasok seme-alaben sufrimendu oro saihestu nahi dute eta hori ezinezkoa da, sufrimendua bizitzaren parte delako. Gehiegi babestuta, gauzak egiten edo okertzen ez utzita, sufrimenduaren aitzinean babesik gabe uzten ditugu eta lehenago edo beranduago sufrimenduari aurre egin beharko diote.
- **Diana INIESTA:** Gehiegi babestutako haurrak baino, gehiegi babesten duten gurasoak daude. Gurasoek euren beldurrak transmititzen dizkiete seme-alabei eta horrela, seguruak ez diren pertsonak sortzen dira, bere buruarekin konfidantza eta erantzukizunik ez duten haurrak. Lehendik orainera funtsean haurren heziketan ez dira hainbertze gauza aldatu. Gaur egun, gurasoek modu integralagoan planteatzen dute seme-alaben heziketa eta haurraren ongizate psikologiko eta emozionalak ezinegon haundiagoa sortzen die. Egungo gurasoak haurrak bere indargune eta gaitasunak deskubri ditzan saiatzen dira, pertsona gisa errealizatu daitezten eta kontentuago izan daitezten.

kin eta tutoreekin harremanak errespetuan eta zuzentasunean oinarritu behar dutela... Honelako jarrerak lotura seguruak sortzen eta konfidantza eta egonkortasuna ematen lagunduko diote».

GURASOEI GOMENDIOA

Hala adierazi die Elizondoko psikoanalistak gurasoei: «irtenbide idearik ematea ezinezkoa da, guraso izateaz gain, emakume edo gizonezkoak garelako, gure gurasoen seme-alabak, langileak,

bikotekideak... Horrek egunerokoan sortzen dituen zailtasunak kontuan hartu behar dira».

Iniestak, bere aldetik, «heziketarak gurasoei beldurra ematen diela» deritza, «baina heziketa ikasketen prozesu bat da, hezitzen ikasi egiten da». Onartu du, «heziketa ez dela lan erraza, eta laguntza behar izanez gero eskatu egin behar dela, ezintasuna, errua edo frustrazioa sentitu gabe». Bertako, «heziketa abentura haundi eta gogorreneta-

riko bat da, baina baita atsegina ere. Haurrek ez dituzte heldu heroikoak eta perfektuak behar, maitekorra eta arretatsuak baizik».

Hitza erabiltzeaz aritu zaigu Belzunegi: «seme-alabei entzun egin behar zaie. Heziketa ez da haurra kontent uztea edo eskatzen duen guztia ematea. Heziketarekin haurrak bere diskurtsoa eta autonomia bilatu behar ditu». Hitzak «onena eta okerrera» emateko balio duela ere azaldu digu:

«ume bati ez zaio 'alferra zara' edo 'ez duzu deus lortuko' erran behar, ezta 'ume hau urruti ailegatuko da' edo 'ministro izatera ailegatuko da' ere. Gurasoak bereganatik espero duena lortzen ez bada, larritu egin daitekeelako». Psikoanalista ezagun baten esaldia ere oroitarazi digu Belzunegik: «gorputza ogiarekin eta hitzekin elikatzen da».

Erratzuko psikologoak «haurrei denbora gehiagoz entzuteko» aholkatu die gurasoei: «haurrak arraz jakintsuak dira eta behar dutena modu zuzen eta irekian eskatzen dute, naturaltasun osoz beraien beharren inguruko arrasto baliotsuak ematen dizkigute. Gure ustez behar dutena gehiago ematen diegu, eta benetan behar dutena guttiago, hau da, arreta eta denbora». Haurrak direla ez atzetzeko ere gomendatu du Iniestak: «gehiegi exijitzen diegu. Gaur egun, dena taulatan neurtua dago: altuera, pisua, solasean hasteko garaia... baina haur bakoitzak bere denbora eta erritmoa behar ditu ikasteko».

ADITUAK MOTZEAN



Rosa BELZUNEGI | ELIZONDO

- **Zigor fisikoaren ondorioak:** Zigor fisikoak, ez du ez konpontzen, eta ez erakusten ere, eta etorkizunean haurrak izaten ahal dituen arazoei aurre egiteko tresnarik ere ez du ematen.
- **Haurrak hezitzeko modurik egokiena:** Ez dago makiltxo magikorik. Ez dago ama edo aita on edo txarrik, bakoitzak ama edo aita izateko bere modua eraiki behar du.

• **Zigorrek beharrezkoak dira?**

Ez. Hitzak huts egin duela adierazten du zigorrak. Baina hitzak huts egiten duenean, badira zigor mota batzuk haurraren onerako ere izan daitezkeenak: sakeleko edo ordenagailurik gabe uztea...

- **Mugak eta arauak beharrezkoak dira?** Bai, guztiz. Garrantzitsua da batzuetan esperoan egon behar dela eta eskatzen duena ez dela posible ikastea. Haurri eskatutako guztia eman ez gero, «frustrazioa onartzen ez duten ume» bilaka daitezke.

- **Non dago zigor fisikoa eta tratu txarraren arteko muga?** Ez dago desberdintasunik, momentu jakin batean ipurdian emandako zartako batez ari ez bagara.



Diana INIESTA | ERRATZU

- **Zigor fisikoaren ondorioak:** Zigorrak sumisioa eta menpekotasuna adierazten du zigortuaren aldetik, eta haurrak egokia ez den nortasuna eraiki dezake.
- **Haurrak hezitzeko modurik egokiena:** Koherentea izatea, egin, sentitu eta erraten denaren artean distantzia ttikia dagoen ingurua eman. Zuzentasuna ere garrantzitsua da, mugak ezarri eta balore irmoak erakutsi.

• **Zigorrek beharrezkoak dira?**

Gainerako estrategiek huts egiten dutenean, zigorra muturreko baliabide bezala erabil daiteke. Mehatxatzea baino hobea da sariak edo onurak kentzea.

- **Mugak eta arauak beharrezkoak dira?** Ezinbertzekoak dira. Beraiztat eta bertzeentzat ona eta txarra dena bereizteko balioko dioten baloreetan oinarrituak izan behar dute.

- **Non dago zigor fisikoa eta tratu txarraren arteko muga?** Zigor fisikoak indarkeria fisikoari egiten dio erreferentzia eta tratu txarrekin eremu zabalagoa hartzen dute, zigor fisikoa barne. Muga zigor fisikoaren arabera da, intentsitate maila, errepikapena...



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Gure dirua, zertarako?

Bankuen konturat ari naiz. Dirua bankurat eramaten dugularik, horren truke zenbat itzuliko diguten galdetzen dugu, hau da, zenbateko "interesa" emanen digun bankuak. Baina behar bada bertze galdera hau ere egin beharko genioke bankuari: "eta gure diru honekin, zer eginen duzue?, zertan enpleatuko duzue?". «Sekulan onartuko ez genituzkeen aferetan enpleatzen dute gure dirua, afera zikin eta gaixtoetan: espekulazioetan (adibidez, janarien prezioa kariatzeko), delako "paraíso fiscal"etan dirua gordetzen laguntzen; armak fabrikatzen dituzten enpresak finantziatzen; ingurumenari kalte egiten dioten enpresei dirua ematen... Diotenez, mafia, narkotrafikoa, prostituzioa eta halako negozioak ere laguntzen dituzte zenbait bankuk (eta ez urrangoek). Hau hola bada, guk ere sekulako erantzukizuna dugu!!! Nik ez dut nahi nire dirua halako gauzetan enpleatzea... Bertze buru hauste bat...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Atzendutako gauzen txokora

Atzendutako gauzen txokora sartu ditut marrazadun bermudak eta loredun atorrak. Han ikusi ditut Georgi Dannen kasetteak, Kortaturen biniloak, pilotarien galtza pirata txuriak, futboleko bota beltzak, txuribeltzeko argazkiak, ordenagailuko disketteak, argazki karreteak, burdinezko kanikak, idazmakina... Beharbada bermudak eta atorrak heldu den udan aterako ditut.

Nabarmentzekoak



Izaskun ABRIL
Nafarroako Gobernua

Isabel Elizalde doneztebarra kontseilari duen Toki Administrazio, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren baitan lan-taldea koordinatzeko ardura izanen du beratarak.



Joxe Antonio GARRO
71 urteko ezpata-dantzaria

Ehun ezpata-dantzari baino gehiago bildu zituen Beti Gazte elkarteak 75. urteurrenaren egunean, abuztuaren 9an. Garro izan zen horien artean beterranoena, 71 urterekin.



Josu PRIM
Laxoa finalean omendua

Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren finalaren egunean, jokalariei epaile eta marrazain ez ezik, elkarterako bertze hainbertze lan egin dituen iruritarra omendu nahi izan zuten.

Atzera begira → 2005-IX-08 / TTIPI-TTAPA 405 zk.



Doneztebeko Bear-Zana pilota plazak 150 urte

Doneztebeko Bear-Zana plaza 1855ean eraiki zen (35.711 erreale eta 50 xentimoren truke) eta hortaz, 150. urteurreneko ospakizuna egin zuten duela hamar urte. Aitzindaria izan zen bere garaian plaza, zolan hareara zuten, baina ez zen putzurik egiten, drenatze-sistema berezi bati esker. Irailaren 18rako prestatua zuten ospakizuna «herri guztiarendako besta eguna da, ez laxoa zaleentzako bakarrik» aipatu zigun Patxiku Ganboak. 1980 urtetik aritutako 49 guantelari eta 2 ttattari omendu zituzten, baita 1960. hamarkadan aritutako batzuk ere. Joku Luzerako plaza egokienetakoa omen zen Bear-Zana, irekia eta zabala.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Sakabanatuak eta muturka?

Juainas PAUL ARZAK

Datorrena antzeman, igarri nahiko nuke, zein gizarte izanen dugun, nolako egoera biziko ote den... Ez hagitz berandu. Heldu den bosturtekoan, esate baterako. Baina ez dut modurik, ez naiz aztiekin fidatzen ezta direnik sinisten, profetak desagertu dira eta ideologoak... Hara, errespetu handienarekin baina, Marx hil zen... Eta hark botatakoei zain bagaude? Langileen iraultza sumatu duzue nonbaitetik? Proletarioen diktadura? Kapitalismoaren amaiera? Jesus, Maria eta Jose...Hau panoramie!

Guztiz aurkakoa. Aberatsen boterea indartzen eta zabartzen doan heinean gehiengoan txantxabroma dirudi, adar jotze soil. Hala ere... gehiengo izanik... Nola gauzatu, ordea? Betitik, betidanik, sekula santatik egundaino boterean egon direnek, agintean txandatu direnek, gauza pare baten beharra izan dute: menpekoen sakabanaketa eta urrutitasuna. Horieta nahiak dira! Herriak ez du inoiz gobernu gaitasunik bereganatu.

Are gehiago, lortze itxura egin duenean segituan urrutiratu diote aukera = iraultzak omen zirenak. Eta gaur egun, antzeko gisako, edo makurrago. Nola eragin European, bertan baino hain urruti, dagoen botere gunea? Interesez, burokratez, presio taldez-lobby deitzen dituzte- josirik demokraziaren gunea omen den horrek nabarmen utzi du, Greziakoa zela-eta, bere benetakoko joko demokratikoa. Orain eta beti guri, menpekoei, dagokigu. Hurrengo hauteskundeetan, estatu mailakoak izanen direla, aurkeztuko direnei hitzak eta ekintzak exijitu; ekintzak hitzak jaten badituzte hurrengoan ez zaiela emanen; eskaintzak betetzeko direla eta, horregatik, hobe gutxi eta sendoak aireak eramanen dituen ugariak baino... Hau da, laburbilduz, gure boto-emaileen eskubideak nola gorde eta garatu behar dituzten azal dezatela. Hori besterik ez. Estatuan eta European. Ongi neur dezatela eskaintza.

Parrez lehertuko dira! Jakin badakitelako gure muturrez aritzeak tratatuko duela den dena; ez diegula kontrol zorrotz hori egiten etsai omen diren horien aurka izanen garelako; politiko guztiak berdinak direla dioen kantuaekin konformatu eta antzekoa, parekoa, urratu arte ez dugula etsiko edo... Eta Nafarroako ereduarena egia balitz? Estatu mailan eta European! Ai, oi, ui ama!

«Herriak ez du inoiz gobernu gaitasunik bereganatu. Are gehiago, lortze itxura egin duenean segituan urrutiratu diote aukera = iraultzak omen zirenak. Eta gaur egun, antzeko, gisako edo makurrago.»

Turistak eta gu

Mikel TABERNA IRAZOKI «KAPI»

Barra-barra etortzen zaizkigu turistak Lapurdiko gure herrietara, urtero-urtero, hutsik egin gabe. Gustukoa dute hemen harrapatzen dutena: itsasoa, hondartzak, paisaia, jendea. Euskal Herrian daudela ikasten dute ikusirik gure herri-kiroletako indar-erakustaldiak, ikurrina, kapelua (le béret basque), ardi gasna. Gero, gainera, mugako bentetara sartzen dira, alkohola eta tabakoa eta guttien usteko zenukeen huraxe merkeago non erosiko, Espainiako oroigarriak ere bai: flamenkoa eta bertze. Baztan-Bidasoaldean eta Leitzaldean ere gero eta gehiago ari da mugitzen negozio klase hau, Ttipi-Ttaparen eskualdea ere paratu baitigute erakuslehoan, erranez berdea eta lasaia dela, herri eta etxe ikusgarriak ditugula, ahokoa gozatzeko moduko gastronomia (usoak, onddoak) eta bide berdea (lehengo trenbidea) edo abenturarako parkeak. Kultur eskaintza ere bada, izpirituarendako bazka samurra: dantzak, pintura erakusketak, leizeak, museoak; eta gure artean bizi izan diren pertsonaia ospetsuei buruzko jakin-garriak: Ravel, Rostand, Baroja. Etortzen da jendea ikustera non filmatu ziren *Las brujas de Zugarramurdi* eta *Ocho apellidos vascos* eta non dauden Dolores Redondoren nobeletan aipatzen diren parajeak. Lastima, domaia, ez dute aunitzek ikasiko nor ziren Axular eta Lakoizketa, Elizanburu, edo Paulo Igantzi eta Manuel Lasarte, ezta oraingo poeta eta rokeroak zertan ari diren ere. Etxekook ere zenbat ote dakigu horien gainean? Ez dugu lanik falta kultura ofizialak zokoa baztertutik utzi dituen gure ondasunak (izenak eta izanak) bistara ateratzeko, geronek ikasi ondotik kanpokoei ezagutarazteko (harri batez bi txori).

Bidenabar, ez dakienari eta jakin nahi ez duenari berriz ere adierazi beharko diogu hemen badugula bertze hizkuntza bat, espainolaz eta frantsesaz gainera, erabili ere egiten dena gauza ederrak sortzeko. Ez dezala gero inork muturra okertu arrotza zaion mintzaira bat aditzean»

«Bidenabar, ez dakienari eta jakin nahi ez duenari berriz ere adierazi beharko diogu hemen badugula bertze hizkuntza bat, espainolaz eta frantsesaz gainera, erabili ere egiten dena gauza ederrak sortzeko. Ez dezala gero inork muturra okertu arrotza zaion mintzaira bat aditzean, edo ez daitezela xixtuka hasi gure lehendakari andrea edo herriko alkatea bere predikua euskaraz ematen hasten delarik.

Irakurleak mintzo

Berako
Aurrekuaz

Antonio RODRIGUEZ
(Berako Gure Txokoako
dantzari ohiak eta dantze-
tako bokal ohiak)

1978an berreskura-
tu zen Beran Aurrekuaz,
20-25 urtez dantzatu
gabe egon ondotik,
azken aldiz dantzatu zu-
ten zenbait dantzari
ohieri esker (Patxi Bur-
gete, Josetxo Lasarte,
Manuel Igoa eta Luis
Mari Urkiola *Leiza*).

37 urtez bere origi-
naltasuna mantendu da,
baina joan den urtean
dantza taldeak koreo-
grafiaren zati bat alda-
tu zuen. Denbora bat
pasatzen utzi ondotik,
dantzari taldea bilera
batera deitu genuen, al-
daketa horien arrazoia
argitzeko. Gure argu-
mentuak azaldu eta
eztabaidatu ondotik,
argi ikusi genuen ez zu-
tela zuzentzeko asmo-
rik.

Dantza guztiek an-
tzinatik datorren koreo-
grafia bat daukate, gu-
titiago edo gehiago gus-
tatzten ahal zaigu, bai-
na gure eginbeharra da
hori errespetatu, babe-
stu, mimatu eta man-
tentzea ahalik eta egoe-
ra garbienean, azken ur-

teetan egin den bezala
eta etorkizunean ere iza-
tea espero dugun be-
zala.

Ez zaigu zuzena iru-
ditzen koreografia bat
aldatzea gustu pertso-
nal bati egokitzeko,
utzi diguten ondarea
errespetatzen jakin be-
har da, hori berresku-
ratzeko hainbat lan egin
ondotik eta herri honen
kultura hainbertze abe-
rastu ondotik.

Argi eta garbi utzi na-
hi dugu gure kekua ez
dela emakumeek dan-
tzatzearen kontrakoa,
lehen ere dantzatu bai-
tute, bai makildantzak,
bai bordondantza bai-
ta Aurrekuaz ere, baizik
eta berreskuratzea hain-
bertze kosta zen Bera-
ko Aurrekuaz originala al-
datzeagatik.

Errekonozimendu
eta esker ona

Miren MITXELENA
(Goizuetako osasun etxeko
langileen izenean)

Goizutako Suhiltzaile
eta ATA boluntarioei bu-
ruz ari gara.

Ezagutzen ez dute-
nentzat azalpen ttiki bat:
Goizueta eta Arano Na-
farroako ipar-mendebal-
dean kokatuta dauden



Bota bertsoa

Orti AROTZENA PORTU (Lesaka) • Doinua: Frantses euskaldun bat etorri zait...
Baztan-Bidasoaldeko XXVIII. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (10 urte arte)

Nere etxeko kaosa

Lau senide gu gaude etxean
eta hortaz badut poza
nere futbola, bixkik, marmarra
eta arreban mototsa
bi telebista a tope eta
lurretik barna arroza
kontrolaezina izaten baita
nere etxeko kaosa (bis).

Batzutan izaten gara semik
gurasoekin barbaro
eta ttikinak hasertzekoan
lasaitasuna akabo
saltsa ez izatea etxean
izaten da hagitz arraro
baina famili polit bat dugu
eta hortaz harro nago (bis).

750 eta 110 biztanle in-
guruko bi herri dira. Dis-
pertsio geografiko haun-
diko zonaldea da berau,
orografia berezia duena
(bidea nolakoa den ere
badakigu...) eta ospita-
lerako distantzia handia
da bertatik (ordu bat in-
guru bai Donostiara, bai
Iruñera ere!). Horregatik
Nafarroako Osasun Sis-
teman "zonalde berezi"
bezala kontsideratuak di-
ra.

Medikua eta Erizaina
24 orduz egoten dira Goi-
zuetan (Goizueta eta Ara-
norako). Baina zer ger-
tatzten da trasladoa
behar duen larrialdiren
bat dagoenean? Anbu-
lantzia Basea Leitzaan ko-
katuta dago; hau da, 30
bat minututara. Baina
anbulantzia hau Goizue-
ta, Arano, Leitza, Areso

heriek eta Larraun, Imotz,
Basaburua eta Araitz-Be-
telu Bailaretako herri
guztiek partekatzen du-
tela ere kontutan hartu
behar da, beraz, denbo-
ra hori dextente luzatu dai-
teke...

Arazoa bistakoa da:
Larrialdiren bat badago,
anbulantzia ailegatu ordurako...
eta gero Donos-
tiako nahiz Iruñeko ospi-
talera ailegatu ordura-
ko...gauza asko luzatu
daiteke...

Bistan da, herritarrek
baino hobeki ez duela
inork ikusten dagoen
beharra. Hori dela eta he-
rriaren Suhiltzaile eta ATA
boluntarioen taldea jarri
zen martxan bere gara-
ian, eta gaur egun lantal-
de oso eraginkorra da,
behar den guztietan hor
daudelako, euren dispo-

nibilitate inkondizionala
erakutsiz, eta profesio-
naltasun handiarekin
gainera. Iada gure lan-
taldearen parte dira,
egunerokotasunean eu-
rekin lan egiten baitugu.

Nola eskertu egiten
duten/duzuen lana? Ez
dago hitzik!

Ba idatzi hau horre-
gatik/horiengatik, me-
rezi duten errekonozim-
endua eta esker ona
adierazteko da:

Goizutako fiestetan
ere hor egon dira, buru
belarri! Besta, familia...
utzi, uniformeajantzi eta
laguntzera!

Jendeak (hurbileko-
ek nahiz Nafarroko Go-
bernuko ordezkariak)
hau jakin dezaten nahi
izan dugu.

Agur bat, eta nola ez,
ESKERRIK ASKO!

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!

CONDOR ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

IRAILAK 5 DESKONTUAK IRAILAK 5

%50% Etxeko gauzak
%10% Gama Marroia
%15% PAE
%5% Gama Txuria

expert BORTZIRIAK

Prentsatik bildutakoak



«35 urte pasa dira [euskal espedizioa Everestera igo zenetik] eta gizartea aldatu den modu berean aldatu da mendizaletasuna ere. Teknologia, baliabideak, babesleak... Dena dira errekorak eta horrelakoak. Gure espedizioaren helburua mendia egitea zen, baina etxean hasi eta buka. Marka egitera bazoaz nekez izango duzu besteengano elkartasuna».

Xabier ERRO
Lesakako mendizalea
ARGIA 2015.08.02



«Mapa begiratu badirudi Nafarroako mendialdean ez dagoela langabeziarik, baina irakurketa ez da langabeziko datuekin bakarrik egin behar, jarduera tasaren datuekin edo bizi den jendea kontuan hartuz baizik, eta orduan bertze arazo bat topatzen dugu. Mendialdeko zenbait lekutan dagoen belaualdi arteko erreleboaren arazoa larria da».

Isabel ELIZALDE
Gobernuko kontseilaria
D. NOTICIAS 2015.08.10

11 galdera labur

Nor da Mathieu Brisson?

Sarako gazteriaren lehendakaria; gazteei ikasitakoa transmititzen saiatzen dena.

Zein afizio dituzu?

Besten antolaketaren lehendakari naizen aldetik, besta maite dut. Errugbia, pilota... kirol ekitaldiak ere segitzen ditut, eta lagunekin elkartzera ere gustatzen zait.

Besten antolakuntzan lehendakari zara..

Bai. Halere, 20 gazteren artean antolatzen ditugu bestak, lana banatuz, martxoan hasita.

Zer dira Sarako bestak zuretzat?

Sentimendu bitxi bat. Herriarentzat momentu garrantzitsua da. Saratar guztiak elkartzera gara, batzuk urtean behin ikusten ditugunak... 5 egunen ondotik, kostatzen da egunerokora bueltatzea.

Ba al dago berrikuntzarik bestetan?

Aurten igandean, desfilea itxaroteko, Zarena Zarelako dantza espektakulua etorriko da.

Bestetan lan egin beharko duzu?

Bai, ostatuan serbitzen, sarrertan larunbatean eta etxeko besteak baino lehen.

Eguneko bestazalea edo gaurtxoria?

Eguneko bestak gehiago maite ditut; eta egunez ongi pasata gauzez segitu behar.

Zer dute Sarako bestek bertze-ek ez dutena?

Fama dute. Eguneko edozein momentutan jende aunitz ezagutzen dugu, Sarako bestetara etortzeko opor hartzen duena.

Bestetako egunik maiteena?

Igandea. Ostaturen buelta egiten dugu. Polita da gure desfilea ikustera jendea etorri dela ikustea.

Ekitaldi politena?

Errebote partida gelditzen delarik, musikariek Angelusa jotzen dutenean.

Amets bat?

Bestek urte luzez horrela irautea eta jende aunitz etortzea aurtentzen irailaren 12tik 16rat.



Mathieu BRISSON → Besten antolakuntzako lehendakaria

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

SMAZIZOR edariak
T./F. 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com
EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

Manterola Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

BORTZIRIAK
Irailak 10ean, erakustaldia Bortziriak-en
Izena eman 948 630 377 telefono zenbakian
25 urte eskerririk asko guztioi!!!
Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · info@bortziriak.com · www.bortziriak.com

ALZURI EDERTASUNAK
ASTONDON
DROGERIA · MENAJE DENDA ESPEZIALIZATUA
948 625 442
San Esteban 17 · BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

ERROTAZAR harategia
BERTAKO PRODUKTUAK
Eztegara, 3 · BERA
T./F. 948 630 088
info@errotazar.net
www.errotazar.net

ikasturte hasiera



LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA
www.lesakakoudalkiroldegia.com

Irailak 12 eta 13 ESKAINTZA BEREZIA %75eko deskontua matrikulan
112,26€ ordaindu beharrean 28€ ordainduko da

Komentu kalea, 2 · 31770 LESAKA · T. 948 637 400
kiroldegia@lesaka.eus

artesiaga

PAPERTEGIA ESKOLARAKO PRODUKTUAK KOPISTEGIA
INFORMATIKA BULEGO ALTZARI ETA HORNIDURAK
jaim e urrutia 57 | elizondo | tel. 948 580 639
artesiaga@artesiaga.com | www.artesiaga.com

Egutegiari begira jarri eta iritsi da gorritz seinalatutako hilabetea. Berriro ere gorputza martxan jartzeko momentua. Errutinaren zurrumbiloan sartzekoa. Dena ordea, ez da makurra izaten... Ikasturte hasierak izaten baitu berri usaina ere. Estreinatutako gabeko liburua eta koadernoena, norbere buruari jartzen zaizkion erronkenak...

2015-2016 ikasturtea ongi ekipatuta hasteko eskualdeko komertzioetan topatuko dituzue eskola eta lantokirako materialak, hasi testu liburuetatik eta boligrafo modernoetaraino...

Eta denbora libreari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, burua edota gorputza lanean jartzeko aukera ere izanen da. Eskaintza zabala da: hizkuntzak, kirol ikastaroak, yoga, meditazioa...

Animo eta ekin lanari!



XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean) 31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

TOKI ONA
Berako Udal Kiroldegia

2015-2016 Kirol Jardueren programa Apunta zaitetz!
Laster eskuorria zuen etxean!

f Berako Toki-Ona kiroldegia @berakiroldegia
INFORMAZIOA: 948 630 215 · bera@urdisl.com

IRAKASKUNTZA → IKASKETAK FRANTSESEZ

Eskualdeko hainbat ikaslek Iparraldean eta Biarnon eginen dituzte DBHko ikasketak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 28 ikas-
tetxe publiko eta itun-
pekoetako 81 ikaslek
Baionako Collège La
Salle Saint Bernard;
Mauleko Collège Saint
François; eta Biarnoko
Salbaterako Collège
Saint Joseph ikaste-
txeetan eginen dituzten
DBHko ikasketak, has-
tear den 2015-2016
ikasturtean. Programa
honetan eskualdeko hi-

ru ikastetxek hartuko
dute parte, hain zuen,
Bera (IES Toki Ona BHI),
Lekaroz (Lekaroz BHI)
eta Doneztebeko (Men-
daur DBHI) zentroek.

Elkartruke honen bi-
dez, ikasleei ikastetxe
frantses batean barne-
tegi-araubidean ikaste-
ko aukera eskaini nahi
zaie. Ikasturtean zehar,
hizkuntzaren aldetik
ulermena eta adierazpe-
na hobetzeaz gain, kul-

tura frantsesa ezagutu
eta garapen per-
sonalerako beha-
rrezkoak diren eskume-
nak bereganatzea da
helburua.

Biarnoko Salbatera
ikastetxera edo Baiona-
ko Collège La Salle Sa-
int Bernardera doazen
ikasleen familiek guti
goiti-beheiti 1.500 euro
ordaindu beharko di-
tuzte, urteko ostatu eta
mantenuari (astelehe-

netik ostiralera bitarte-
koa) dagozkionak. Mau-
leren kasuan, aldiz,
3.500 eurotan izanen
dute urteko ostatu eta
mantenua. Honez gain,
guztientzat bat eta be-
ra da hileroko garraioa-
ren prezioa, 110 euro,
zehazki.

URTEZ URTE IKASLE GEHIAGO

2013-2014 ikastur-
tean abiatu zen progra-

ma eta Nafarroako 171
ikaslek parte-hartu du-
te dagoeneko egitas-
moan. Gainera, urtez ur-
te parte-hartzaile kopu-
ruak goiti egin du. Le-
hendabiziko urtean,
2013-2014 ikasturtean,
36 ikaslek hartu zuten
parte; 2014-2015 ikas-
turtean 54 ikaslek; eta
oraingo honetan 81
ikasle izanen dira
esperientzia hau biziko
dutenak.



2015/2016 kurtsorako
matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak

IKASTURTE HASIERA: Irailak 14

University of Cambridge azterketara
aurkezteko prestakuntza

Itzulpen lanak egiten dira • Eskola laguntza

20 URTE BAINO GEHIAGO MALERREKAN

Elizagibela, 7 behea • 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 • angieacademy@gmail.com

ELKAR
liburudenda

- Testu liburuak
- Eskolako materiala
- Aldizkariak eta prentsa
- Fax zerbitzua eta fotokopiak

Eztegara, 18 • T. 948 630 691 • BERA

2015-2016 IKASTURTEA
Ikasturte hasiera: **IRAILAK 15**
Matrikulazioa: irailaren 7tik 11ra (biak barne)
Arratsaldetan, 18:00etatik 20:00etara

Yoga | Meditazioa | GAH | Sabel dantza - Dantza sensuala
Erditze aurreko prestaketa tailerrak | Erditze ondorena. Sustengu taldeak
Umetxo eta gurasoentzako yoga | Haur masajea | Portadancing

TERAPIAK: Reikia | Akupuntura, bach loreak, iridiologia... | Reflexologia, regresioak, masaje metamorfikoa, emozioen liberazioa...

**IKASTURTEAN ZEHAR IKASTARO, TAILER ETA HITZALDI
DESBERDINAK ESKAINIKO DITUGU**

Eta ikasturte berriarekin batera gure **webgunea** ere **estreinatzen** dugu
www.centrodasya.com Bisita ezazu! <https://www.facebook.com/DasyaZentruaLesaka>

Informazio gehiagorako:
© 691 025 855 (Begoña) • centrodasya@gmail.com • info@centrodasya.com

ARKUPEAK

GIZARTEA → IRAILETIK AURRERA MARTXAN BERRIZ

205 bazkidek egin dute irteera Aralarko santutegira

Fernando ETXEBERRIA

Orain artean uztailearen 26an, ataxi-amatxien egunean, egin izan da Aralarrera ateraldia baina aurten uztailearen 30ean egin da. Elkarteko 221 bazkide 12:00etan bildu ziren Aralarko basilizian Mikel Garziandiak gidatutako meza entzuterako. Gorraizen bazkaldu eta bazkalondoa Jose Angelek girotu zuen.

Horretaz gain, 95 elkartekide Kroazian izan dira oporretan. Kroaziarra, Lezora eta Hondarribira egindako bidaiari buruzko azalpenak hurrengo alean jasoko dituzue.

Bazkideen egunean aldaketak

Bazkideen eguna urriaren 22an Donezteben ospatzekoa zen, baina azkenean Gorraizen izanen da. Bertako elizan eta gazteluan eginen dira egun horretarako aurreikusita dauden ekitaldi guztiak.

Ordezkarri berriak

Azkenean bete dira zenbait herritako ordezkari zetan zeuden hutsuneak. Hala, Beran ordezkari berriak Paula Etxeberria eta Maria Jose Agesta izanen dira eta Maria Angeles Izurategiren laguntza izanen dute.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideak, Aralarko Santutegian.

nen dute. Joxe Irazoki Zugarramurdiko ordezkaria izanen da, Patxiku Andeza Doneztebekoa eta Maria Erbiti Pedro Telletxearen ordezkaria izanen da Leitzan 2016 urtariletik aurrera. Denak lanean hasiko dira ordezkarien asanblada onartu ondoren.

Liburu aurkezpena Gaztelu

Irailaren 22an Jose Mari Esparzak "La sima" liburua aurkeztuko du Doneztebeko zinean 19:00etan.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Baztango Donejakue bideko azken zatia osatu dute

Lantz eta Arre arteko bidea osatu ondotik, Donejakue bideko ibilbide guztiak osatu dituzte Elkarteko hainbat kidek. 15 urtetan, Frantziako bidea, Aragoikoa eta Kostaldekoa zeharkatu dituzte.

Ileak kezkatzen bazaitu
DIAGNOSTIKOA DOHAINIK
egingo dizugu
(ESC ekipo teknikoaren laguntzarekin)

YOAN
PELUQUERIA
ILEA PAINDEGIA

Hairdreams®
THE ART OF HAIR CREATION



ITXURA ALDATZEAK MEREZI DU

Irailaren 5ean etorri eta informatu,
opari bat eta deskontuak lortuko dituzu.
Ordutegia: 16:30-20:00

Bidasoa, 8 BERA | T. 948 63 01 77

KULTURA → IRAILAREN 20AN EGINEN DA

Aire zabaleko margo lehiaketa berreskuratuko du Gure Txokoak

Hamaikagarren edizioa izanen da, baina 1993an egin zen azkenekoa

keitioko Carlos Baudilok lortu zuen lehen saria eta Ermuko Jon Idigorasek bigarrena. Javier Sagarzazu, Enrique Albusu eta Antonio Ferran margolari profesionalek osatu zuten epaimahaia. Gure Txokoatik jakinarazi dutenez, «edizio guztiak azaroan ospatu izan dira. Oraingo honetan, berriz, irailera aurreratu dugu hilabete hori egokiagoa izan daitekeelako. Ikusiko dugu erantzuna zein den, baina gonbitea luzatua da go».

TTIPI-TTAPA

Aire zabaleko XI. Berako pintura-lehiaketa antolatu du Gure Txokoak Udalaren laguntzaz irailaren 20an. 16 urtetik goitiko edonork parte-har dezake eta margolanak aire librean eta Berako udalerrriaren eremuan egin behar dira. Lehen saria 1.000 eurokoa izanen da eta bigarrena 600 eurokoa. Euskaria goizeko 08:30ean zigitatuko dute Gure Txokoak elkarteak erakusketaretoan eta margolanak 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Epaimahaikideen erabakia 18:00etan jakinaraziko dute.

Hamaikagarren edizioa bada ere, azkenekoa 1993. urtean egin zen eta bertan, aurrekoetan bezalaxe, Euskal Herri osoko parte-hartzaileak izan ziren, 33 denera. Bizkaiara joan ziren sari nagusiak: Le-

TURISMO DATUAK

2.500 bisitari baino gehiago izan dira udan Ibardingo turismo bulegoan

Nabarmena izan da aurtengo udan bisitarien joan-etorria eskualdean eta Ibardingo turismo bulegoan ere asko izan dira sartu-irtena egin dutenak. Ekain erdialdean hasi ziren zerbitzua eskaintzen eta abuztuaren 25era arte 2.630 pertsona pasa dira bulegotik, gehienak bikoteak eta familiak. Abuztuan izan da bisitari gehien, 1.352 pertsona izan dira bertan eta 502 informazio eskaera egin dituzte. Uztailen 1.112 pertsona eta 454 eskaera jaso dira eta ekainean 166 bisitari eta 75 eskaera. Bisitarien jatorriari dagokionez, ez da aldaketarik izan, abuztuan adibidez, bisitarien %90 pasatxo frantziarrak izan dira. Eskatutako informazioari dagokionez berriz, lakurako bidea, oinez egiteko ibilbideak eta bizikletaz egiteko ibilaldiak izan dira gehien eskatutakoak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Garai bateko tanborrada berreskuratuko dute herriko bestetan

Giro ederrean joan dira herriko bestak. Txupinazoan, emakumeen kirola eta ondarearen zaintza uztartu zituzten. Herri kirolean ari diren Nerea Sorondo, Amaia Garcia eta Leire Ugartek bota zituzten lehen suziariak eta San Migel eta Konpaneko zubiak zaharberritzen aritu den lan taldeak ondokoak. Egun handian, iaz bezalaxe, emakumeek ere dantzatu zuten goizeko Bordondantza eta Makildantzeta eta protagonismo gehiago izan zuten arratsaldeko Aurrekuan. Halere, nobedade handiena arratsaldeko dantza saioaren eta musika bandaren kontzertuaren ondotik etorri zen, duela 45 bat urte galdu zen Berako tanborrada berreskuratuko baitzuten, Totonon Errandonearen gidaritzapean. Peña bakoitzeko bina kidek jo zuten plazan. Horretaz gain, jende ugari ibili zen dantza herrikoietan eta bertzelako ekintzetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Luis Muñoz Espainiako txapelkun

Luis Muñoz Iturrik Espainiako plater tiroketa txapelketa irabazi du, foso unibertsal modalitateko bigarren kategorian. Abuztuko lehen asteburuan jokatu zen txapelketa Granadako Las Gabias herrian. Muñozek 200 plateretatik 195 hautsi zituen.

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSFATUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

Saragueta aholkularitza
abokatu bulegoa
Felipe Saragueta. Abokatua
• Zuzenbide administratiboa
• Hirigintza
• Sozietateak
• Nazioarteko zuzenbidea
fsaragueta@abokatua.com
Borja Mujika. Abokatua
• Komunitateak
• Herentziak
• Familia zuzenbidea
• Erreklamazio zibilak
bmujica@abokatua.com
Iparralde karrika 5, beheha · 31780 BERA · 948 625 162

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

OSPAKIZUNAK → AUZOKO BESTAK

Bittiriko bestak irailaren 11tik 13ra ospatuko dituzte

Herri-kirol desafio sorpresa jokatuko da larunbatean

Aitor AROTZENA

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, Bittirian antolatu dituzte auzoko bestak. Iraileko bigarren asteburuan izanen dira, irailaren 11tik 13ra bitarte. Hiru egunez, ongi pasatzeko aukerarik ez da faltako:

ORTZIRALA, IRAILAK 11

- 21:00etan Txupinazoa eta kalejira
- 21:15etan Patata tortila txapelketa
- 21:30ean Berendu afa-ria 3 euroren truke
- 23:00etan Txamukos taldearen eskutik marriatxiak

LARUNBATA, IRAILAK 12

- 10:00etan Diana txistulariekin
- 11:00etan Lesakako Erraldoi eta buruhandien konpartsa auzoan barna.
- 12:00etan Herri-kirol desafio sorpresa Bittiriko plazan.
- 17:00etan Mahai jokoak
- 21:00etan berendu afa-ria 3 eurotan
- 22:30ean Dj Taperekin dantzaldia.

IGANDEA, IRAILAK 13

- 11:00etan Haur eta gaztetxoentzako jokoak, Eltzeta plazan
- 16:00etan Mus txapelketa
- 18:00etan Hodei magoak "Ilusioaren indarra" ikuskizuna eskainiko du.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

OHARRA

Abix-abix haur jolasaz ikerketa

Ikerketa lan bat osatzeko Abix-abix haur jolasa gogoratzen duten Lesaka, Bera edo inguruko adineko euskaldunen bila dabilta. Norbaitek gaiaren inguruko informazioa eduki edo gaiaz solastuko lukeen norbaiten berri edukiko balu, abixabixka@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Ehun dantzari bildu ditu Beti Gaztek 75. urtebetetze egunean

Beti Gazte Elkartearen 75. urteurreneko ekitadi nagusia izan zen abuztuaren 9ko Ezpata-dantzarien Eguna. Egun horretan bete zituen zehazki 75 urteak Beti Gaztek eta 102 ezpata-dantzari bildu ditu, zazpi taldetan banatuak. Joxe Antonio Garro, 71 urterekin izan zen beteranoena eta Beñat Etxabide gazteena, 9 urterekin (10 eginen ditu azaroaren 23an). Historiako Zubigaineko eta Ziharkako jendetsuenak dantzatu zituzten, Martxel Rodriguezek Aurrekua dantzatu zion Beti Gazteren banderari eta 300 lagun baino gehiago bildu ziren frontoian egindako herri bazkarian.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegara 25 bajo 31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

GIZARTEA → PROPOSAMENAK BALORATUKO DIRA

Herriko ostatu eta jatetxearen errentamendua atera du Udalak

Maizter berriarekin, hala adostuko balitz, udalak berak ekipatuko lituzke sukaldea eta jantokia

tzia eman nahi dio Udalak eta, hartara, irekita dago proposatu ahal zaien bertzetaren bat aztertzeko. Adibidez, maizter berriarekin hala adostuko balitz, udalak sukaldea eta jatetxearekin ekipamendua bere gain hartuko luke, hileko errentaren prezioa egokituta, jakina.

Uso postuen enkantea larunbat honetan

Iarmendiko uso postuen enkantea eginen da larunbatean Herriko Etxeko batzar-aretoan eguerdiko 12etan. Guztira 21 postu aterako dituzte enkantera. Garestiena 3.205 €tan eta merkeena 900 €tan. Iaz 40.822,93 € BEZ barne bildu zituen herriak.

TTIPI-TTAPA / Iruñe ELIZ.

Irailaren 25a bitarteko epea dute interesatuek ostatu eta jatetxearen funtzionamendu-proposamenak eta eskaintza ekonomikoak aurkezteko. Izan ere, nahiz eta lehiaketa publikoa hasierako prezioa baldintza zehatzekin publikatu den, interesatuek aurkeztu beharra duten eskaintzari garran-



ARGAZKIA: REBEKA ARANZADI ETA IRUÑE ELIZAGOIEN

Aurtengo bestak ere borobila izan dira

Kanpoko jende aunitz ibili da besta egunetan herrian. Ekitaldi jendetsuenak herri afaria, Andramari eguneko dantza saioa, herriko gazteen arteko kirol desafioa eta Asaua izan ziren. Abuztuaren 18an frontoian ere giro bikaina sortu zen, Altxata eta herriko gazteek antolatutako pilota txapelketako finalak jokatu ziren eta emozioa ez zen falta izan.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Larraburuak urteroko bidaia egin du

Abuztuaren 22an Zestoa eta Azpeitia ezagutzera egin zuten egun-pasa Larraburu elkarteak. Goizean atera, Zestoaiko Ekain kobazuloa ikusi, Azpeitian bazkaldu, bertako trenaren museoa ikusi eta baperezko trenean ibilita ilunabarreako, berriz ere, Etxalarrera bueltatu ziren.

Ba al zenekien

Uda honetan 1.500 turista baino gehiago pasa direla Etxalarko turismo bulegotik.



elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behea 31780 BERA
t. 948 631 283 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

ETXES ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
E N E E K
NEKAZARITZA LABURGINTZA
NEKAZARITZA PODOLOGIA
NEKAZARITZA MERKATUETARA
Inskripzio Zenbakia 1435

ZALDI
FERRATZAILEA
625 704 419

IGANTZI

ZERBITZUA → 16:00ETATIK 18:00ETARA

Udal liburutegia astearte eta ostegunetan egonen da zabalik

Bestetan ostatua paratuko du guraso elkarteak

TTIPI-TTAPA

Igantzi Udalak herrian liburutegi zerbitzua martxan paratu du. Abuztu erdialdean ireki zituen ateak eta geroztik edozein herritarrek liburutegira joan eta bertako liburu bat maileguan har dezake. Euskaraz eta erdaraz idatzitako ehunka liburu daude aukeran, heldu eta gazteei zuzendutakoak. Dohako zerbitzua da eta urte bukaerara arte behintzat irekita egonen da.

Zerbitzuaz baliatu nahi dutenek, lehenengo irakurle txartela egin beharko dute. Irailean, astearte eta ortzegunetan egonen da zabalik, 16:00etatik 18:00etara. Herriko bestetan, aldiz, ez da zerbitzurik eskainiko. Irailetik aurrera ordutegi eta egutegian



UTZITAKO ARGAZKIA

Abuztu erdialdean ireki zuten liburutegia.

aldaketak egon litezke eta horien berri izanen duzue pixkanaka, aldikari honetan bertan eta baita herrian barna jarriko dituzten oharren bidez ere. Horretaz gain, udaletxera joanda zerbitzuari buruzko informazio gehiago ere eskuratu liteke.

Maileguaz gain, zenbait liburu norberarentzat hartzeko aukera ere izanen da. Liburutegian lekua falta da eta liburu batzuk soberan daude. Horregatik, norbaitek beretzat hartu nahi ba-

litu aukera izanen du. Horrenbestez, liburutegira zer dagoen ikustera gerturatzeko gonbidapena egiten dute. Abenduan soberan gelditu diren liburuak Trapuketareiei emanen zaizkie.

Bestetan ostatua paratu nahi du guraso elkarteak

Gurasoek aurtengo bestetan ere ostatua paratzea erabaki dute. Aitzineko urteetan, hainbatek laguntza eskaini

arren, gurasoen artean moldatu izan dira egin-beharrak betetzeko. Aurten, ordea, lan aunitz dagoela ikusita, laguntza eskatu nahi dute. Borondatea duten guzietan aritzeko aukera emanen zaie: ostatuan edo sukaldean aritzeko, besta aitzinetik ostatua montatzen laguntzeko, edo ondotik desmontatzeko, baita besta aitzinetik kroketak egiteko ere... Laguntzeko gogoak duenak guraso elkarte-ko edozeini erranda nahikoa da.

HAUTAGAI BILA

Udal hauteskundeetarako lan taldea osatzeko deia egin dute

Udal hauteskundeak hurbiltzen ari direla ikusita, udal lan-taldea osatzeko jendea behar dela gogorazi nahi dute. Urriarotan egingen diren hauteskundeetan herriko jendeak osatutako lantalde bati boto ematea herriarentzat onena izanen litzatekeenez, animatu egin nahi dituzte herritarrak parte hartzera. Bertzenaz, Nafar Gobernutik izendatutako gestora baten egin beharko ditu udaleko lanak.

BILTOKI ELKARTEAK ANTOLATUTA

XXV. mendi bizikleta ibilaldia irailaren 6an izanen da

Azken urteotan egin bezala, mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Biltoki elkarteak igande honetarako, irailaren 6rako. Aurtengoa probaren XXV. edizioa izanen da eta beti bezala, haur nahiz helduek izanen dute ibiltzeko modua. Helduen ibilbidea 09:00etan hasiko da eta 10:00etan haurrena. Helduek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 26 kilometrokoa eta 35ekoa. Haurrek berriz, ibilbide txikia eta ertaina. Izen-ematea egun berean egin beharko da, 07:30etik 08:30era helduak eta 09:30ean haurrak. Ibilaldiaren ondotik, luntxa eta opariak ere zozketatuko dira.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106
948 630 967
w. www.zalain.info
e. sainz.amaia@gmail.com

Zalain

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arturo

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 5EAN

Eguzkialdeko besta larunbat honetan izanen da

Aizkora
apostua, auzo
bazkaria,
dantzaldia...
egun ederra
izanen da

Nerea ALTZURI

Iraileko lehenbiziko larunbatean, hilaren 5ean, Eguzkialdea auzoko besta eguna izanen da. Eguerdiko 12etan altxaferoa bota eta gero, aizkora apostua izanen da. Auzo bazkariaren ondotik, Beñatek, herriko akordiolariak, Fernandok lagunduta dantzaldia eskainiko dute (Los Txamukos taldekoak). Ilunabarrean, pintxoak eta ogitartekoak izanen dira.

Bertzalde, auzotarrak eguberrietako loteria ere ateratu dute. Bertan salgai izanen da, baita herriko ostatueta ere gainerako egunetan.

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots irailaren 19an

2015-2016 ikasturtea hasi orduko, gainera dugu Euskal Herriko pailazo entzutetsuenen

bisita. Pelle-Ttiki haur eskolaren ekimenez, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo taldeak, "Txo Mik Mak Txikia" lana eskainiko du irailaren 19an, arratsaldeko 17:00etan eta Arantzako frontoian. Sarrerak salgai daude 8 eurotan, ondoko lekueetan: Arantzako Zakutea, Pabloenea eta Burlada ostatueta; Etxalarren Herriko okindegi; Igantzin La Villa jantetxean; Lesakan Izarra okindegi; Berako Xuga ostatueta; Donezteben Titi ostatueta eta Sunbillan Ariztigain kanpian.

6 ikasle Pelle-TTiki haur eskolan

Pelle-Ttiki haur eskolan ere aste honetan hasi dute ikasturtea eta sei haur izanen dira Kolobike Gorostiza hezitzailearekin.

Herri Eskolan 11 ikasle gehiago

Bertze hainbat ikastetxeetan bezalaxe, irailaren 10ean abiatuko dute ikasturtea eskolan. Aurten, hiru urteko gelan 9 ikasle; bertz urteko gelan eta 3. mailan ikasle bana izanen dira.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXE

Arantza Rock Jaialdi arrakastatsua

Abuztuaren 22ko arratsean izan zen ekaitzak ez zuen Arantza Rock jaialdia zapuztu. Plazan paratutako karpa erraldoian, ehunka lagun bildu ziren jaialdiaren 20. urteurrenako besta berexiaz gozatzeko. "Mazionk haize" leloarekin bat eginez, ia 1.700 lagunek gozatu zuten lehenbiziko edizioko kartela: Baldin Bada, Sutagar eta EH Sukarra taldeek emanikoak hain zuzen ere. Aipatzekoa da, Baldin Bada beriz ere bildu zela jaialdi honetarako. Arratsari hasiera emateko, Gazte Asanbladako kideen eskerronen ondotik, taldeko oraingo eta lehengo kideak bildu eta bi bertso kantatu zituzten. Baldin Bada lehenik, Sutagar gero eta azkenik EH Sukarra izan zen. Elepuntu disko jartzailearen emanaldiak jaialdiari akabaila eman zion. 20. urtemuga ahaztezina izan da. Aurrikuspenak bete eta gainditu ditu Arantzako Gazte Asanbladak. Egun honen inguruan jende aunitzen babesa azpimarragarria izan da. Oro har, balorazio hagitz ona egin dute Gazte Asanbladatik. Herriarren auzolan handia eta eskertzekoa izan da. Hortaz, ekitaldi honetan parte hartu duten guztiak eskertu nahi ditu Arantzako Gazte Asanbladak. Aunitz urtez Arantza Rock zure 20. urtebetetzean eta bertze horrenbertze eta gehiago bete!!!



ARGAZKIA: MAIXE OSKOZ ETA NEREA ALZURI

Besta ederrak izan dira

Herriko bestetako irudi guztiak ezin atal honetan jarri. Orokorrean, besta ederrak izan dira: dantzarien emanaldiak, haurrentzako jarduerak, musika emanaldiak, kirol ekitaldiak, bertsolariak, herri bazkaria, elkartasun afaria, auzoetako afariak....

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

SUNBILLA

HERRIKO BESTAK → ERREPASOA

Ederrak izan dira bestak

Herriko eskulan taldeko kideek buruhaundiak konpondu dituzte

Maider PETRIRENA

Bestak pasa berritan, horien laburpena egin behar... Herriko bestak abuztuaren 8tik 12ra bitarte izan dira aurtengo urte honetan.

Abuztuaren 8an, goiz partean, Arretzeko bordako kronoigoera egin zen laugarren urtez jarraian. Orain arte bizikletan bakarrik egin zen baina aurtengoan lasterka egiteko aukera ere bazen. Bizikletaz 16k hartu zuten parte eta lasterka berri 8k. Bizikletako irabazlea Iker Lizarazu, bigarrena Aitor Apezteguia eta hirugarrena Xabier Irazoki izan ziren. Lasterka, berriz, Unai Plazak irabazi zuen, bigarren postua Joseba Elizagoienek eskuratu zuen eta hirugarrena berriz Xanti Manterolak. Horrez gain magra baten zozketa ere egin zen eta Pako Sanzberro izan zen irabazlea. Zorionak dene!

Arratsalde partean, berriz, Sunbitek antolatua, lehen bizikleta ginkana izan zen. Eguraldiak ez zuenez sobera lagundu eliz atarian egin behar izan zen. Ondoren, berendu ederraz gozatu zuten. Mailaka sailkatu zituzten eta argazkian maila bakoitzako irabazlea ageri da.

Haur eta gaztetxoak gin-

kana eginen zuten bitartean, helduek plater tiraketaz gozatzeko aukera izan zuten nahiz eta eguraldiak ez zuen sobera lagundu. Hamabi pertsonok hartu zuten parte eta irabazlea Iñaki Mikelarena izan zen.

Arratsaldeko 8etan beste ofizialki hasiera emateko unea ailegatu zen. Jendetz betirik, erraldoiak, buruhaundiak, gaiteroak, txaranga eta guztiarekin herriko txistulariek 2015eko beste hasiera eman zieten. Ondoren, Ulibeltzak elkartearen eta herriko ostatueta zopak jateko aukera izan genuen.

Igandea, haurren eguna bezala jarria zegoen baina denbora txarra egin zenez jokulandia astelehenera pasatzea erabaki zen. Arratsaldean XIV Ramon Latasa Saria izan zen eta ordu berean Zumba plazan. Hagitz polita izan zen.

Astelehena, gazteen eta haurren eguna izan zen. Goizean herri krossa (65 parte hartzaile bakoitza bere kategorian), goiz-arratsaldean jokulandia eta tren txutxua izan ziren. Eguerdiko 2etan kuadrillen bazkaria eta ondoren ura-ura. Egun ederra eta ekitaldiz bete izan zen. Ilunabarrean tortilla eta postre lehiaketa. Aurtengoan arrakasta guttiakoa izan da. Guztira 5 tortilla eta 6 postre aurkeztu ziren. Tortilla irabazleak Patxi eta Iñaki izan ziren, bigarrena Mirari eta hirugarrena Agurtzane. Postre lehiaketa, berriz, lehenengo Mirari Mariezkurrena, bigarrena Agurtzane Zubietta eta hirugarrena Izaskun



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA JONTXU ANIZAR

Irudietan ikus liteke, ederki pasa dutela herritarrek.

Jorajuria izan zen. Zorionak dene!

Asteartean, San Tiburtzio eguna ospatu zen. 09.30ean gaiteroek argi soinuak jo zituzten. 11:00etan meza nagusia izan zen Tiburtzio deunaren ohorez. Bertan herriko abesbatzak kantatu zuten. Bukarera herriko txistulariek xarmengaria kanta jo zuten, bereziki Don Basilioren eskainia. Ondoren, herriko plazan bertako dantzari eta erraldoiek emanaldia eskaini zuten. A ze nolako emanaldia gainera!

Ondoren, urtero bezala, herriko plazan luntxa izan zen. Arratsalde partean, toka eta aitzur nahiz zartagin tiraketaren txanda izan zen. Parte-hartze handiko arratsaldeaz gozatzeko aukera izan genuen. Aitzur tiraketan 19 pertsonok hartu zu-

ten parte, tokan helduetan 13k eta haurretan 25ek eta zartagin tiratzen 17k.

Aitzur tiratzen 1. Daniel Bertiz, 2. Jabier Ibarra eta 3. Haritz Agesta; Tokan helduetan 1. Jose M^o Urroz, 2. Julen Ibarra eta 3. Aitor Ibarra eta haurretan 1. Garazi Etxalar, 2. Xuban Zelaieta eta 3. Iker Yecora eta zartagin tiratzen 1. Edurne Urroz, 2. Eva Muñoz, eta 3. Nagore Madariaga izan ziren garaile. Ikusle andana elkartu zen une eder bat pasatzera. Gau partean, su artifizialak izan genituen. Jendetza elkartzen da beti ere suak ikustera.

Asteazkenean, abuztuak 12, ezkonduen egunarekin eman genien bukarra beste. Goizean egunero bezala argi soinuak. 10etan mus txapelketa izan zen. 25 bikote aritu ziren garai-

pena lortzeko lehiatzen. Juan Luis eta Patxiku izan ziren irabazleak, bigarren Timoteo eta Iñaki, hirugarren Jose Luis eta Juana Mari eta laugarren Ines-Salva.

Eguerdian herri bazkaria Jaiak txaranga alaiturik eta arratsaldean alde batetik V. Miguel Latasa Memoriala (gaztetxoek pilotak) eta bertetik binakako esku pilota partidak izan ziren. Berrikuntza bezala erremonete partida ere izan zen. Ikuskizun paregabeak izan ziren denak ere.

BURUHAUNDI BERRIAK

Bide batez, herriko eskulan taldeari eskerrak eman behar dizkiegu, buruhaundiak beraiek konpondu eta berriak bezala utzi dituztelako. A ze lana egin duten! Eskerrik asko!

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TIP: 948 625 474

Goieko DESINBERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kuku...
eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Produktuak
BERRANDONEA, s.l.
PABAIK ETA BARABAIK
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 19AN MOTOZALEEN TOPAKETA

Besta txikiak irailaren 18tik 20ra ospatuko dira

Herriak Koteto Ezkurrari omenaldia emenaldia egingen dio

Marga ERDOZAIN

Aurtengo besta txikiak **ortziralean, irailaren 18an**, hasiko dira erremonate partidekin. Nafarroako Foru Erki degoko Magna Sariko finalerdiko partida lehiatuko da. Urriza eta Olazar Ezkurra II.a eta Endikaren aurka ariko dira. Ondoren, Kotetori omenaldi txiki bat eskainiko zaio. Erremonte profesionalean osatu duen 25 urteko ibilaldi oparoa sarituz.

Arratsaldeko 8etan botako da Santa Luzia plazan besta txikiei hasiera ofiziala emateko suziria. 21:00etan, Burrunbak herri afaria antolatu du. Zopak dastatzeko aukera izanen da.

Larunbatean, irailaren 19an, diana eta aurorok esnatuko dute herria, 09:00etatik aitzinera. Motor hotsek hartuko dute horien lekukoa, motozaleen topaketa egiteko baita herria. 11:00etan hasiko da motozaleen besta eta erakusketa. 11:30ean gazteen laxoa partidak jokatu dira eta 12:00etan buruhandiak aterako dira. 13:00etan kalejira egin eta 14:00ak aldera hasiko da bazkaria Santa Luzia plazan. Ondoren elektro-txaranga ibiliko da karririk alaitzen. Arratsaldeko 7etan tortilla lehiaketa eta txistorrada egingen



ARGAZKI ARTXIBOKO ARGAZKIA

Koteto Ezkurrari omenaldia eskainiko dio herriak, 25 urteko kirol ibilbidea sarituz..

IRAILAREN 19AN

MOTOZALEEN TOPAKETA

Besta txikien baitan, **motozaleen topaketa antolatu da herrian, antolatzaileek aparteko bazkaria antolatu dute eta baita bazkalondoko animazioa ere.**

dira. Ondoren Guateke taldearen emanaldia izanen da eta gauean gaupasa.

Irailaren 20an, igandean, 11:00etan herrikirolak antolatu dituzte txikiendako Bear-Zana plazan eta 12:00etan buruhandiak. Arratsaldean puzgarriak jarriko dituzte frontoian eta birziklapen tailerretan parte-hartu eta txokolate goxoa edateko aukera ere izanen dute bertaraten direnek.

Besta tiki izena duten arren, ekitaldirik ez da falta. Hau posible izateko, udalak deituta, bi bilera burutu dira, herriko taldeak eta norbaita bertaratu.

IKASTURTEA HASTEKO PREST

Mantentze lanak eta hobekuntzak egin dituzte hiru ikastetxeetan

San Miguel eskola, Mendaur institutua eta Askin haur eskola ikasgelak atontzen ari dira ikasturteari hasiera emateko. Askin haur eskolakoak izanen dira mantalak janzen lehenak, irailaren 3an hasiko baitira. San Miguel eta Mendaur ikasturtea batera hasiko dute, irailaren 10ean. Hiru ikastetxe hauetan udan zehar udalak ohiko mantentze lanak eta hobekuntzak egin ditu. Gainera Nafarroako Gobernua emandako diru-laguntzari esker gimnasioan hainbat obra burutu dira hezetasun arazoak sahisteko. Attoko-attoko ikasgelak prest daude 500 haur eta gazteri ongi etorria emateko.

EUSKARA IKASIZ

Irailaren 30era arteko epea dago IKA euskaltegian izen-emateko

Marga ERDOZAIN

Doneztebeko IKA euskaltegiak irailean abiatu du matriculazio kanpaina. Irailaren 30a arte euskara ikasi, hobetu edo C1 edo EGA titulua eskuratu nahi duenak aukera du bertan izena emateko. Bes-

te urtetan bezala bai klase prentzialak, ONLINE edo autoikaskuntzan oinarritzen direnak eskaintzen ditu euskaltegiak. Interesatu dutenek Euskaltegira joan eta informatu edo 948 451555 telefonora deitu dezakete.

FLASH

Sara Artieda da liburuzaina

Uztailean egindako hautaketa proben ondoren Sara Artiedak lortu du liburuzain lanpostua. Irailaren 14ra arte goizeko ordutegia beteiko du, 10:30etik 13:30era. Egun horretatik aitzinera arratsaldekoarekin hasiko da, 5etatik 8etara.

Igerilekua 13ra arte zabalik

Igerilekuko denboralia luzatu da irailaren 13ra arte. Gainera aurten igeriketa ikastaroaz gain, aquagym ikastaroa ere izan da eta tarberna zerbitzua ere eskaini dute.

Ur mozketak

Abuztuan hainbat ur mozketa izan dira zerbitzuan egon litezkeen matxurak antzeman eta konpontzeko. Irailaren 10.etik, tokian tokiko mozketak egingen dira. Udalak herritarrei barkamena eskatu nahi die mozketa horien ondorioz sortzen diren eragozpenengatik.

Herritarren beharrak jasoz

60 inkesta jaso ditu udalak herritarren auzoetako beharrak eza-gutzeko. Horiek aztertuta udalak auzoka lanen zerrenda prestatu du eta lehentasunak ezarrita, poliki-poliki lanak burutzeko konpromisoa hartu dute.

Zerbitzu anitzeko langilea behar da

Udalak zerbitzu anitzeko langilea kontratatzeko deialdia antolatu du. Irailaren 11ra arte aurkeztu litezke eskaerak Enpeglu Zerbitzuan.

ITUREN

OSPAKIZUNAK → SAN MARTINEI BEGIRA

Batzuentzat oporrak bukatu eta bertzeentzat hasi dira

Euskal Herriko, Kataluniako eta Valentziako bisitariak izan ditugu

Arkaitz MINDEGIA

Gure herrietako karraketan bisitari aunitz izan ditugu uda honetan. Eguraldia lagun izan dute eta egun pasa edo egun gehiagotarako herriko landaetxeetan, Tresenea ostatuan eta Abarun aterpetxean egin dute geldialdia.

Herrian gelditu direnen herritarrek ere izan dute ongi pasatzeko aukera. Haurrek bertze urteetan bezala ludoteka



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ttikienek primeran pasa dute uda honetan.

zerbitzua izan dute uztaila eta abuztuan Ixiar Bazterrika eta Iza-ro Ariztegik gidaturik. Gisa guzietako tailerrak, eskulanak eta ateraldiak burutuz.

ITURENGOAK PASATA, AURTIZKO BESTEN ZAIN

Atzean utzi ditugu Iturengo herriko bestak eta aipamen ttiki bat egin gabe ezin utzi... Ederki joan dira ekital-

di guztiak. Bestetan jendetza bildu da eta parte-hartzea ere handia izan da, giro eta umore onean. Hurrengo urtekoen esperoan gara dagoeneko. Hala ere, irai-

lean sarturik erran laister joaldunen eguna ospatuko dugula, hurrengo aldizkarian emanen dizuegu egitarauaren berri. Eta uda akitzean delarik, inguruko azken bestak ere badatoz, Aurtizko San Martinak. Dagoeneko bilerak eginen hasiak dira gazteak, proposamen berriak egin eta egitarauak osatzen joateko.

BAGUZI ETXETRESNAK

Beñat Elizalde herritarrek etxetresnak konpontzeko zerbitzua jarri du martxan. Etxez etxe eskaintzen du zerbitzua, beraz, beharra baduzue jarri berarekin harremanetan.

DONAMARIA

GIZARTEA → GIRO EDERREAN JOAN DIRA BESTAK

Udarari probetxua atera eta berriro lanerako prest

Zumba ikastaroak izanen dira asteazkenetan

TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun, aurtengoan ere, giro ederrean joan dira Donamariako bestak.

Ekitaldi aipagarrienak amabirgin eguneko herri kirol desafiaoa, patata eta postre lehiaketa, goitibeherak eta azken egu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Abiada bizian, umore bixi-bixian.

neko zikiro jatea izan ziren.

Herri kiroletan herriko gazteak "ez hain gazteen" kontra aritu zi-

ren eta gazteenek irabazi zuten lehia.

Abuztuaren 16angoitibeherak atera ziren. 15 batek hartu zuten parte



UTZITAKO ARGAZKIAK

14 haur ibili dira ludotekan

Amaia eta Naiararen ardurapean hainbat jarduerak egin dituzte: eskulanak, kirola, ibilaldiak... Haurrek ederki pasa dituzte udako goizak eta gauza pila bat ikasteko aukera izan dute.

eta Artzetik behera hiru zpalautan jaitsi ziren. Ikusgarriak ziren guztiak.

Mus txapelketak eta patata tortilla eta postre lehiaketek ere ez zuten hutsik egin eta abuztuaren 18an 150 bat lagun

bildu ziren bazkarian.

Zumba ikastaroa

Irailaren erdialdera denboraldi berria hasiko da. Asteazkenetan izanen da 20:30etik 22:00etara eta Jaione izanen da irakaslea.

BESTAK → ERREPASOA

Parte-hartze handia izan da bestetan

Euripean edo eguzkipean, giro ederrean

F. ETXEKOLONEA/I. ZUBIALDE

Besta herrikoiak eta parte-hartze handikoak izan dira. Jendea festarako eta lanerako gogoz zegoen eta nabaritu da emaitzan, eskerrik asko!

Bezperan, urtero bezala zubitik gauerdian ekarri zuten herritarrek songainean arbola plazaraino. Euria egin arren, jendea ez zen etxean geratu eta plaza bete zen.

Badira herriko besten bereizgarri diren ekitaldiak eta aurtengoan ere ohiko arrakasta izan dute: joaldunen joan-etorriak, Mendaur trikitixa taldearen emanaldia, dantza saioa, aizkolariak... Erasun eta Palaxio eta Migueltxo Mindegia eta Saralegiren arteko lehia ikusteko aukera ere izan genuen eta saltsa ederra jarri zuten. Azkenean Migueltxo Mindegia eta Saralegik irabazi zuten.

Abuztuaren 16, igandea, haurren arteko pilota par-



Agerikoa da ederki pasa dutela denek festetan.

tiduak izan genituen. Txiki-en artean txapeldunak Uxue Santesteban eta Mattin Agesta izan ziren, eta azpitxapeldunak Lander Indakotxea eta Zaira Bendoiro. Koxkorren artean berriz, Aitor Agesta eta Oier Agesta lehengusuak, azpitxapeldun Aritz Aragon eta Endika Santesteban. Ordu berean, plazan moto klasiko-en erakusketa ere izan zen, benetako relikiak ikusteko aukera izan zen. Arratsaldean, mus txapelketaren ondotik, patata tortilla lehia-

keta izan zen. 12 tortilla aurkeztu ziren eta irabazlea Dendarineko Arantxa eta lbaiek egindako tortilla izan zen eta azpitxapeldun berriz, Dendarineko Luismi eta Kokotxeako Mikel izan ziren.

Aurten lehen aldiz, toka jarri da plazan, eta jende askok probatu nahi izan du.

Abuztuaren 17an haurraren eguna izan zen. Goizean goiz, haur asko bildu zen plazan eta goiz osoan jolasean aritu ziren. Ondotik plazan bazkaltzeko au-

kera izan zuten, urtetik urtera gehiago dira, aurten 85. Arratsaldean, plater tiroan lehenengo postua Aitor Agestak lortu zuen, bigarrena Leoloko Hilariok eta hirugarrena Errandoneko lbaiek. Arratsaldeko 8ak aldera, estreinakoz, gazteen

arteko jokuak egin ziren. Nahikoa irri egin genuen.

Herri bazkaria izan zen azken eguneko ekitaldi jendetsuena. Amets Arzallus eta Sustrai Colinaren eskuetik bertso ederrak entzuteko aukera izan zen bazkalondoan. Pala txapelketako finala ere jokatu zen eta Beñat eta Mikelek irabazi zuten. Gero, piñatak paratu ziren plazan eta futbito partida eta merendua ere izan ziren arratsaldean.

Eta beste bukaera emateko, goizaldeko 02:30 aldera arbola botatzen hasi ziren. Aizkoraz Arrazoko Joxe Antoniok egin zuen koska eta arpanaz Pentako Markos eta Fermiñeneko Pellok bota zuten arbola. Aurten lehen aldiz, arbola bi zatitan moztu zen eta muturreko zatia etorkizuneko arbola altxatzaileek eraman zuten.

ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Ba al zenekien

Zubietar ttiki bat gehiago dugula herrian. Uztailaren 29an jaio zen Inma Castro Mindegia. Zorionak Ainhoa eta Raul gurasoei eta atautxi eta amatxiei.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia
edredoi fundak • albornozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → BESTEN ERREPASOA

Aurtengo bestak ere borobilak izan dira

100 pertsona bildu ziren azken eguneko herri bazkarian

Fernando ETXEBERRIA

Urtero bezala bezperan, Barranka ostatuan egin zen afariarekin eman zitzaien hasiera beste. Mahaiaren bueltan bilduta, giro bikaina sortu zen Jose Angelen akordeoiaren konpainian.

Abuztuaren 15ean, goizean, mezaren ondotik, Ortzadar dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. Arratsaldean, aizkorak zorrotz... Nafarroako hirugarren

mailako finala jokatu zen eta Oier Cañamaresek jantzi zuen txapela. Finalaren aitzinetik eta gibeletik Estitxu Almanoz lesakarrak erakustaldia eskaini zuen harrarekin.

Abuztuaren 16an, umeak izan ziren protagonista, jokoak eta txokolatada antolatu ziren beraientzat. Arratsaldean berriz, 24 herritarrek, gazte eta ez hain gaztek, herri kirol desafioa jokatu zuten.

Abuztuaren 17an, 17 bikotek hartu zuten parte mus txapelketan eta Kristobal eta Pello izan ziren irabazleak. Martxi eta Ramon anaiak bigarren, Txuma eta



ARGAZKIAK: F.ETXEBERRIA

Bautista hirugarren eta Martxel eta Urko lauugarren. Ordu berean, ipuin-kontalariak emanaldia eskaini zuen udaltxean. Eguna bukatzeko, Hilario eta Mieltxo Mindegia J.A. Loarte eta M.Indakoetxearen aurkako desafioa jokatu zuten eta lehenbikoak izan ziren irabazleak.

Abuztuaren 18an beste bukaera borobila emateko, herri-bazkaria egin zen eta 100 pertsona inguru bildu ziren. Gero, Migel Angel eta bere mariatxekin dantzan eta kantuan aritzeko aukera izan zen. Gaueko 10ak arte luzatu zen besta Bixente akordeoilariarekin. Hasi, bezalaxe bukatu, gi-

ro bikainean. Izan ere, Azken urteetako besta hoberenak izan dira, bai parte-hartzaile kopurugatik eta baita ekitaldiengatik ere. Emaitza borobil hau ez zen posible izaneren boluntarioen lanagatik ez balitz. Dena ongi atera dadin lana gogotik egin behar izaten dute eta merezi dute esker ona.

URROZ

IRTEERA → ABUZTUAREN 23AN

Mendi ibilaldia egin du herritar talde batek

Garai bateko bidexketan barna, Zoratxipiko tontorreraino

Joseba URROTZ

Bezperan botatako sekulako ekaitzak ez

zizkien planak zapuztu eta abuztuaren 23an, imendi ibilaldi polita osatu zuen herritar talde batek. Goizean, 07:30 aldera abiatu ziren herriatik eta bidexka berezietan barna iritsi ziren Zoratxipiko tontorreraino. Eguzkia ere esperoan zuten tontorrera iritsita koan. Gero herrira bu-

eltatu eta ostatuan bazkaldu zuten elkarrekin. Gustora gelditu ziren guztiak egindako ibilaldiarekin eta berriro ere egitekotan dira. Ez dakigu urteroko hitzordua bihurtuko den edo lehenago antolatuko ote duten bertze bueltaren bat. Mendi ederrak ez dira falta inguruan!



DEIALDIA → URRIAREN 1EAN ZABALDUKO DIRA SOBREAK

Herriko ostatuaren erabilera berritu edo eskaintza berriak aurkezteko epea zabalik

Irailaren 7tik 20ra bitarte aurkeztu litezke proposamenak

Mattin LARRALDE

Herriko ostatuaren errenta aldia amaitu ondok, erabilera berritu edo eskaintza berriak aurkezteko garaia iritsi da. Interesa dutenek udalak paratzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Hilean 10 euro ordaindu beharko dira alokairuagatik eta argindarra, gasa eta ura ere hartzekodunek or-

daindu beharko dituzte. Prezio horren barruan ostatua, lehen solairua eta biltegia sartzen dira eta udalarekin adostutako ordutegi bat ere bete beharko dute.

HERRITARREI ETA KANPOKOEI AUKERA

Proposamenak irailaren 7tik 20ra bitarte aurkez litezke Elgorriagako udaletxean. Urriaren 1ean zabalduko dituzte sobreak eta ondoren erabakia hartu. Herritarrek eta kanpokoek ere aurkez ditza-kete proposamenak. Animo!

Aurtengo bestak ere mundialak

Urteroko ekitaldiek eta berrikuntzek osatzen zuten aurtengo bestetako egitaraua. Zikiro, mus eta tokaren bueltan giro ederra sortu da beste urte batez eta aurten estreinekoz egin diren paella, kalderete, apar festa eta boneta tiraldiek ere arrakasta handia izan dute. Muskarik ere ez zen falta izan, azken orduko ezustekoak tarteko talde pare batek agertzerik ez zuen izan, baina Soñadores Natos taldeak ezustekoa eman eta ederki bete zuen besteen hutsunea. Gazteek antolatu zuten kontzertu hau eta horixe izan zen sorpresa hoberena. Abuztuaren 1an, berriz, gurasoek antolatuta haurren eguna ospatu zen. Haur jokoekin hasi, bazkariarekin segi eta arratsaldean magoak emanaldia eskaini zuen. Akordeoi doinuekin dantzan aritu eta bokatak janez bukatu zuten eguna.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE.

HIPERSiMPLY
NAFAR MENDI BAZTAN - BIDASOA

Ikasturte hasiera

Nafar Mendi merkatalgunea - Arraioz, Baztan | 948.452.656 | 09.00 - 21.00

ERATSUN

BESTAK → IRAILAREN 4TIK 8RA

Bankako kantariak eta Errekako dantzariak datoz egun handian

Paella eta tortilla jatean lortzen den dirua *Enaitz lagundu* kanpainari emanen zaio

- 14:00etan herri bazkaria eta Bankako kantariak.
- 18:00etan Doneztebeko Erreka dantza taldearen emanaldia.
- Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Dantzadi taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 6

- 12:00etan patata tortilla lehiaketa.
- 14:00etan herriko plazan paella eta tortilla jatea. Lortutako dirua *Enaitz lagundu* kanpainari emanen zaio.
- Goiz-arratsaldean puzgarriak eta egurrezko jostailuak haurrentzako.
- 18:00etan pilota partiduak. Lau eta erdiaren barrenean, Elizalde eta Olaizolaren kontra. Binaka: Asier Olai-zola eta Eskudero; Olazabal eta Koka.

TTIPI-TTAPA

OSTIRALA, IRAILAK 4

- 18:00etan txupinazoa herriko pestei hasiera emanez.
- 18:15ean etxez etxe kalejira soinuariaren laguntzarekin.
- 21:00etan Baztan zopak.
- 00:00etan dantzaldia Elizagoien ahizpen eskutik.

LARUNBATA, IRAILAK 5

- 11:00etan etxez etxe kalejira Elutxa txaranga-ekin.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Joan den urtean bezala, Doneztebeko dantzariak eta Bankako kantariak herrian izanen dira.

- 19:30ean Loz Caza-huetes mariatxi taldea.
- 21:00etan eta gauetan Oihana eta Oihana soinuariak.
- 22:00etan emakumeen afaria.

ASTELEHENA, IRAILAK 7

- 11:00etan mus txapelketa.
- 16:00etan Ines Bengoa ipuin kontalaria.
- 17:00etan *Malerreka*.

Maldan goiti eta beheitiko kontuak. Erreka bazterreko kantuak filma.

- 20:00etatik 22:30era Oihana eta Oihana soinuariak.

ASTEARTEA, IRAILAK 8

- 10:30ean txistulariak herrian zehar.
- 11:00etan Meza Nagusia eta ondoren luntxa.

- 12:30ean aizkolariak: Palaxio-Rekondo vs. Erasun-Mindegia.
- 18:00etan pilota partidak. Lau eta erdiaren barrenean, Elizalde Mendizabalen kontra. Binaka: Urbieta eta Gorrotxategi; Saralegi eta Eskudero.
- 20:00etatik 22:30era Oihana eta Oihana soinuariak.



ORBELA
SENDERISMA ATERRITZA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

ttipi-ttapa

(0034) 948 635 458
erran.eus

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BESTAK → IRAILAREN 4TIK 8RA

X. patata tortilla lehiaketa jokatu da bestetako larunbatean

Igandean, Doneztebeko dantzarien saioaren ondotik, mariatxiak izanen dituzte

- Ondoren txokolatada haur zein helduentzat.
- 20:00etan herritarren arteko X. Patata tortilla lehiaketa.
- Arratsaldean eta gauez dantzaldia izanen da Oharkabe taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 6

- 12:00etan herri kirol saioa.
- 18:00etan Doneztebeko Erreka taldeko dantzarien emanaldia.
- Ondoren, Roberto Urrutia y el amanecer de sus mariachis taldearen emanaldia.
- 21:00etan ajoarriero lehiaketa.

ASTELEHENA, IRAILAK 7

- 14:00etan herri bazkaria, euskal kantaz alaitua.
- Arratsaldean, herri kirol saioa. Herritarrek



ARGAZKIAK: MAIALEN MITXEOK UTZIAK

Plazan nahiz ostatuan izanen da dantatzeko eta kantatzeko aukera.

TTIPI-TTAPA

Bortz eguneko bestak antolatu dituzte Oizen. Iraileko lehenbiziko ortziralean hasi eta asteartera bitartean haur, gazte eta helduek izanen dute non gozatu. Mahaiaren bueltan, jolasean, herri kiroltan... eta dantzan eta kantuan aritzeko aukera ere izanen da plazan eta baita ostatuan ere.

ORTZIRALA, IRAILAK 4

- 20:00etan beste hasterako emateko altxaferoa botako dute. Herriko trikitilariak herri barna ibiliko dira.
- 21:00etan Zopak.
- Gauez dantzaldia Joxe Angel akordeoilariarekin.

LARUNBATA, IRAILAK 5

- 11:30ean laxoa txapelketa ttikien artean.
- 12:00etan mus txapelketa elkartearen.
- 17:00etan haurrendako jokoak

lehiatuko dira elkarren aurka.

- Ondoren dantzaldia eta afaltzeko txistor eta xingar jatea plazan.

ASTEARTEA, IRAILAK 8

- 11:00etan Meza Nagusia. Ondotik luntxa elkartearen.

(Irailaren 4tik 8ra bitartean, egunero haurrentzat puzgarriak izanen dira).

Oizko Udalak besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ONGI PASA BESTAK!!!

EZPELURA ITURGINTZA S.L

Kalefakzioa • Gasa
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emailea

Tfnoa.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

GIZARTEA

EKONOMIA → ZOR PUBLIKOA ESPAINIAKO EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOAREN DATUAK

Banketxeekin dituzten zorrak %12,8 murriztu dituzte eskualdeko udalek

14,7 milioi euro zor dituzte eskualdeko 17 udalek

DATUA

8

UDAL ZORRIK GABEAK
Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Eratsun, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietak ez dute inongo zorrik banketxeekin.

murdi da, diferentzia handiarekin, herririk zorpetuena (2014an 225 biztanle zituela kontuan hartuz gero, biztanleko 2.364 €ko zorra zuten). Bigarren Lesaka litzateke (1.531 €ko zorra biztanleko), hirugarren Areso (940 €/biztanleko), laugarren Baztan (723 €/biztanleko), gero Arantza (585 €/biztanleko)...

ZORPETZE TTIKIENA

Zor gutien duten herrien artean daude Elgorriaga (35 €/biztanleko), Ezkurra (164 €/biztanleko), Bertizarana (169 €/biztanleko), Ituren (177 €/biztanleko), Etxa-

HERRIA	2013ko ZOR BIZIA	2014ko ZOR BIZIA
ARANTZA	397.000 €	368.000 €
ARANO	0 €	0 €
ARESO	271.000 €	250.000 €
BAZTAN	6.672.000 €	5.672.000 €
BEINTZA-LABAIEN	0 €	0 €
BERA	1.135.000 €	961.000 €
BERTIZARANA	73.000 €	102.000 €
DONAMARIA	0 €	0 €
DONEZTEBE	884.000 €	734.000 €
ETXALAR	240.000 €	195.000 €
ELGORRIAGA	26.000 €	8.000 €
ERATSUN	9.000 €	0 €
EZKURRA	0 €	25.000 €
GOIZUETA	0 €	0 €
IGANTZI	280.000 €	260.000 €
ITUREN	102.000 €	93.000 €
LEITZA	1.246.000 €	937.000 €
LESAKA	4.471.000 €	4.199.000 €
OIZ	64.000 €	57.000 €
SALDIAS	0 €	0 €
SUNBILLA	185.000 €	171.000 €
URDAZUBI	247.000 €	175.000 €
URROZ	0 €	0 €
ZUBIETA	0 €	0 €
ZUGARRAMURDI	594.000 €	532.000 €
GUZTIRA	16.896.000 €	14.739.000 €

lar (238 €/biztanleko), Bera (256 €/biztanleko), Sunbilla (263 €/biztanleko), Leitza (322 €/biztanleko),...

Oro har, 2013tik 2014ra udal guztiek arindu dute zorra, Bertizaranak eta Ezkurrak izan ezik. Azkenik, zorrik ez

dutenak Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Eratsun, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietak dira.

HERRIRIK ZORPETUENAK

Kopuru absolutoei begiratuta, udalerririk handi eta jendetsuenak dira, zorrik handiena dutenak. Baztanek 5,6 milioi euro, Lesakak 4,2 milioi, Bera eta Leitzak milioiaren inguruan, Doneztebek 0,73 milioi,...

Alabaina, herri bakoitzak duen zorra biztanle kopuruaren arabera banatuz gero, Zugarra-

LAN ESKAINTZA → IRAILAREN 4AN BUKATUKO DA CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA

Cederna-Garalurrek Turismo teknikari bat kontratatu nahi du Baztan-Bidasorako

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko Garapen Turistikoan lan egiteko turismo teknikari bat kontratatu nahi du Cederna-Garalur elkarteak. Kontratuaregun

erdikoa izango dasei hilaibetez, baina luzagarria izan daiteke. Lanpostu honetarako hautagai izateko persona batek bete behar dituen baldintza gutxieneoak

hauek dira: Turismo arloko diplomatu titulua edo baliokidea izatea; Euskalduna izatea, frantsesa edo ingelera menperatzea (B2 mailako titulu ofizial bat es-

kutzen da atzerriko hizkuntzen kaasan) eta B1 gidabaimena izatea. Turismo ekintzak dinamizatu eta koordinatzea izango du eginkizun nagusi. Curriculumak in-

fo@cederna.es helbidera bidali beharko dira mezuaren tituluan "Baztan-Bidasoa Turismo Teknikaria" idatzita. Irailaren 4a da aurkezteko azken eguna.

GIZARTEA → NAFARROAKO BERTZE 20 ESKAINTZA TURISTIKOK LORTUA DUTE

Tripadvisor webgunearen bikaintasun ziurtagiria lortu du Bertizko Parke Naturalak



Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeek ere badute

TTIPI-TTAPA

Bertizko Parke Naturalak lehen aldiz lortu du bidaien iritziei buruzko *Tripadvisor* webguneak emandako bikaintasun ziurtagiria. Nafarroako bertze 20 toki eta eskaintza turistikoek ere lortu dute ziurtagiria, baita 47 ostatu eta 58 jatetxek ere. *Tripadvisor* webguneak urte osoan sareko erabiltzaileen aldeko iritzia jasotzen dituzten munduko baliabide turistikoak ematen die saria. Bertizek 5etik 4,5 puntu lortu ditu.

Ziurtagiria lortu duten gainerako 20 toki eta eskaintza turistikoetatik 9 Iruñean daude (katedrala, udaletxea, harresiak, Entzierroaren Monumentua, Estafetakoa balkoiak, Yamaguchi parkea, Gaztelu plaza, taconerako Lorategiak eta hiriburuko eskaintza gastronomikoa). Gainontzekoak Errege Bardeak, Orreagako kolegiata, Urdazubiko Leizeak, Zugarramurdiko leizea, Irunberriko Arroila, Leyreko Monasterioa, Xabierko Gazteluko Museoa, Urederra ibaiaren iturburua, Erriberriko Jauregia, Urbasa-Andia Natur Parkea eta Iratiko Oihana dira.



GOIZUETA

GIZARTEA → PROPOSAMENAK UDALETXEAN

2015-2016 ikasturteko ikastaroak zehaztu nahi ditu Udalak

Irailaren 10era arte aurkez litezke proposamenak

TTIPI-TTAPA

Udalak hainbat ikastaro eskaintzeko asmoa du ikasturte honetan ere eta horiek zehazten joateko deialdia zabaldu du. Ikastaroren bat emateko interesa duten herritarrei aukera ematea da asmoa. Dantzak, musika, sukaldaritza... ikastaroren bat eman nahi duenak bere proposamena aurkez dezake udaletxean, irailaren 10a baino lehen. Ikastaroa

emateko bete beharreko baldintzei eta xehetasunei buruzko informazioa udaletxean bertan jaso liteke. Herritarren proposamenak jaso ondoren erabakiko da zein ikastaro eskainiko diren.

Iñigo Elizegi aske geratu da

Hamaika urtez Saint-Maureko espetxean, Frantzian, preso egon ondotik, abuztuaren 17an aske geratu zen Iñigo Elizegi herritarra. Iluntzean iritsi zen Goizuetara eta bertan egin zioten harrera familiako kide eta lagunek.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Festak hartu zituen herriko bazter guztiak

Abuztuan Goizuetan festa giroan murgildu ez zena, etxetik atera ez zelako izan zen. Abuztuaren 8an auroroekin belarriak goxatuz edo kantuan gozatuz, hasi zen nabaritzen festa giroa. Umeen eguna etorri zen biharamunean. Eta txupinazoa lehertu eta hurrengo lau egunetan atsedenerako tarte gutxi izan zen. Gazteen eguna, pilota partidak, zezenak, sagardo probaketa, bakailao lehiaketa... Ohikoa denez, peñen egunarekin eman zieten bukaera borobila festei. Barrutik eta kanpotik ongi bustita, giro paregabea sortu zen beste behin ere.

IRAKASKUNTZA → NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZA

92.887 euroko diru-laguntza eman die eskualdeko hainbat ikastetxe publikori

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak 400.000 euroko diru-laguntza eman du 27 ikastetxe publikotan birmoldaketa-obrak egiteko.

Eskualdeari dagokionez zortzi udalerriz izan dira onuradunak, denetara 92.887,69 eu-

roko diru-laguntza jaso dutelarik.

Bortzirietan Arantzak 1.180,80 euro jaso ditu kutsadurak hondaturiko ur-hodiak ordezkatzeko; Lesakak 1.696,48 euro sukaldeko estalkia iragazgaitzeko; eta Berako Ricardo Barojak ikastetxeak 570,40 euro hezetasanak bigar-

ren solairuko teilatuan eragindako hustubidearen kalteak konpontzeko; eta bertze 513,36 euro erdisotoan hondatuak dauden berogailu-hodiak aldatzeko.

Baztanen, Arraiozko eskolak 5.648,66 euro jaso ditu komunak moldatzeko. Malerrekari dagokionez, Doneztebe-

ko eskolari 12.983,58 euro eman zaizkio gimnasioa iragazgaitzeko. Bertizaranan, Legasako ikastetxeak 33.259,21 euroko diru-laguntza eman zaie estalkiak moldatzeko; Leitzaidean, Aresok 3.619,20 euro jaso ditu gimnasioko terraza iragazgaitzeko; eta Xare-

tan, Zugarramurdik 33.416,00 euro estalkiaren konponketarako.

Obrok azaroaren 1erako akabatu behar dira.

LAGUNTZA JASO DUTE

Arantza, Lesaka, Bera, Arraioz, Doneztebe, Legasa, Areso eta Zugarramurdiko ikastetxeek.

KIROLA → IRTEERA 08:00ETAN

Aresoko VIII. mendi martxa irailaren 6an

21 kilometroko luzera eta 1.250 metroko desnibela du ibilbideak

Juana Mari SAIZAR

Iraileko lehendabiziko igandean mendizaleez beteko da beste behin herria. Zortzigarren urtez antolatu da Aresoko Mendi Martxa eta goizeko 8etan izango da irteera. 21 kilometroko luzera eta 1.250 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek.

Aresoko plazatik abiatuta Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Lau Mugarietatik (Guratz) pasatu ondoren Aresora itzuli beharko dira. Ba-

taz beste, 4 edo 5 ordu inguruan bukatu ohi dute proba mendizaleek. Bidean, indarrak hartzeko, edariak eta jakiak ere jarriko dituzte antolatzaileek.

IZEN EMATEA EGUNEAN BERTAN EDO AURRETIK

Izen-ematea aldeztu aurretik internet bidez edo egunean bertan, proba hasi baino ordu bete lehenago plazan jarriko dituzten mahaietan, egin liteke. Izen-ematea Irailaren 4a baino lehenago egiten dutenek, 12 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean berean egiten dutenek 15 euro. Proba bukatu eta kamiseta jaso eta gero herritarrek prestatutako paila bazkaltzeko aukera izango da sagardoa erekin.



ARGAZKIAK: JAIONE OLAZABAL ETA JUANA MARI SAIZAR

Primeran joan dira aurtengo pestak

Oraindik festek utzi diguten zapore onarekin jarraitzen dugu. Aurtengoan primeran joan dira, herritarrek lana eta festa gogoz egin dute eta. Parte-hartzea ere handia izan da, bezperatik hasita, lehia polita eskaini zuten herri kiroletan gazte eta gurasoen kuadrilek. Asko gozatu zuten ikusleek eta baita parte-hartzaileek ere. Herri bazkariak, bertsolariak, aizkolariek, antzerkiak eta sagardo dastaketak ere jendetza bildu zuten plazan. Horretaz gain, artzain txakur txapelketak ere ikusmin handia piztu zuen. Urteak geramatzan antolatu gabe eta erantzuna oso ona izan zen. Plaza gaineko belazean egin zen saioa, toki ikusgarrian eta erakustaldi polita eskaini zuten artzain eta txakurrek. Koadrillen eguna ere zoragarria izan zen, jende asko bildu zen, herria kolorez bete eta alaituz. Txarangarekin batera herri-aren buelta eman ondoren paella jan eta ondoren koadrillen arteko jokoak izan ziren. Ondoren herriko inguruxoa dantzatu zen eta jende asko elkartu zen, kolore eta adin guztietakoa, plaza guztia betez. Joselu Anaia taldearen dantzaldiarekin bukatu ziren pestak. Eskerrak eman behar zaizkie herritar guztiei, modu batean edo bestean parte-hartu dutelako, ikusle, lanean eta gozatzen, denetarako jendea behar baita!

ARANO

GIZARTEA → 16:00ETATIK 17:30ERA

Zakurrei txertoa jartzeko aukera irailaren 15ean

Albaitaria etorriko da herriko plazara

Ainhoa ANSA

Aranoko Udalak ja-

kinarazi duenez, irailaren 15ean, asteartea, albaitaria etorriko da herriko plazara, zakurrei txertoa jartzera. Interesa dutenek, bertara joan beharko dute

URRIAREN 1A BITARTE

Ur eta saneamendu tasak ordaintzeko epea zabalik

Uraren tasa eta etxeko saneamenduko kanonaren jakinarazpenak egin ziren abuztu hondarrean eta ordainketa urriaren 1a baino lehen egin beharko da. Kontua helbideratua duenak ez du deus egin beharko.

Orain arte ez bezala, hemendik aurrera, herriko ur saretik ura hartzen duten bordek ere ordaindu egin beharko dute. Aurten onartutako tasen arabera, 50 euro ordainduko du borda bakoitzak.

16:00etatik 17:30era eta txakurraren titularraren NANA aurkeztu beharko dute, baita zakurraren kartilla ere. Txertoa jartzeak 20 euro balio du eta zakurrari txertoa

eta identifikazioa jarri nahi dizkietenek 40 euro ordaindu beharko dituzte. Jabe aldatzea berriz, 10 euro kostatzen da.

Kontuan izan behar

da, lau hilabetetik aurrerako zakurrek identifikatu eta txertatuta egon behar dutela eta egin ezean, isuna jaso dezakeela zakurraren jabeak.

LEITZA



GIZARTEA → EKAINAREN 19AN AURKEZTU ZUEN

IX. Ur festa irailaren 11n ospatuko da

508 bazkidek erabili dute udako igerileku zerbitzua

JM BARRIOLA

Gozamenez programaren baitan antolatzen den Ur festa, irailaren 11n ospatuko da aurtengoan. Gizarte Zerbitzuek, Leitzako kiroldegia eta Andraizko Emakume Zerbitzuak antolatzen dute bederatzi urtez geroztik. Iluntzeko 8etan hasi eta gauerdia arte luzatuko da festa. Hamabi eta hamasei urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago ekimena eta helburuen artean sexualitatea errespetuz eta gozatzuz bizi, gozamen eta tratua bultzatu, festa giroan drogak kontsumitu gabe ongi pasatzeko esperientzia bultzatu eta festa osasungarriak bultzatu nahi dira. Iaz 50 gazte parte hartu zuten.

Igerilekuak arrakasta

Aurtengo oso pozik daude herriko igerilekuak kudeatzen duten ardura-dunak. Eguraldi ona aprobetxatuz jende as-

ko hurbildu da bertara eta inoiz baino bazkide gehiago izan dituzte. 508 bazkide hain zuzen, horietatik 50 inguruko herrietatik etorri dira. Ekainaren 21ean hasi zen aurtengo denboraldia eta irailaren 13ra arte luzatuko da. Maria Zabaletak, igerilekuko arduradunak, gogorarazi nahi die erabiltzaileei denboraldia bukatzean, igerilekuan gordeta uzten diren hamaka, aulki eta beste lakoen bila joateko garaia dela. Galdu edo ahaztutako gauzak topatzen dituztenean ere biltzen joaten direnez, zerbait falta duena galdetzeraz joateko abixua ere eman du.

Odola emateko aukera 21ean

Odol-emaileak direnek edota odola lehenengoz eman nahi dutenek aukera izanen dute irailaren 21ean Leitzako plazan. Aurreko aldietan bezalaxe autobusa etorriko da udal-letxe azpira. Arratsaldeko bostetan hasi eta zortzi eta erdiak arte egonen da odola emateko aukera.



ARGAZKIAK: PABLO FEO

Santiburtzioak umore ederrean!

Aurtengoan bata bestearen atzetik joan dira festa egunak, atsedeen hartzeko tarte handiegirik gabe. Repartoarekin hasi eta abuztuaren 15era arte denetarako aukera izan da. Dantzariak, xexenak, gaupasak, kontzertuak, afariak, bazkariak.... guztia umore ederrean!

ZERBITZUAK

Sutarako egurra etxeratzen hasiko dira laister

Hirugarren urtez sutarako egur loteak etxeraino emateko zerbitzua martxan jarri zen uda hasieran. Urte hauetan gora-behera batzuk izan diren arren, eskaerak gorantz egin du nabarmen, mendiko ordenazio planean aurreikusita zegoena gaindituz. Horregatik epe motzean egoeraren azterketa bat egitera behartuko du Udala. Aurtengo Pako Altzuri enpresari esleitu zaio lana (epaitzak bota, moztu eta kargaleku edo etxeraino eramatea). Egurra etxeraino eramateko 117 familiak eskatu dute, kargalekutik hartuko dutenak 16 familia dira, eta zutik era tradizionalen, hau da, norberak lurreratu, moztu eta etxera eraman, 24 familiak.

GIZARTE-LAGUNTZA

Ezintasun fisikoren bat dutenei laguntzeko tresneria berezia eskuratu dute Gizarte Zerbitzuek

JM BARRIOLA

Gizarte zerbitzuek Laguntza teknikoko proiektu bat aurkeztu zuten Nafarroako Kutxa Fundazioan eta 3.300 euroko laguntza lortu zuten. Diru horrekin ezintasun fisiko edo arazoren bat duten pertsonen laguntzeko tresnak erosi dituzte. Adibidez aulki bereziak, gurgildun aulkiak dutxarako eta kalerako, arnesak dituzten gruak, heldu eta haurren-

tzat makuluak, elefante hankak, ohean edo aulki-gurgildunean egon behar dutenei burua garbitzeko tresna bereziak. Material hauek behar dutenei uzteko asmoa dute. Beti ere, protokolo bat ezarrita eta momentuan dituzten baliabideen arabera eskainiko dute zerbitzua. Gizarte Zerbitzuek kanpaina baten bidez laister emanen dute guzti honen berri.

LANA → ALKERDIKO HARROBIA (URDAZUBI) USTIATZEKO BAIMENIK EZ DUELA-ETA

Marmoles del Baztan-ek behin-behinean lanaldia murrizteko prozedura abiatu du

Irailaren 15ean sartuko da indarrean langile guztiei eragiten ahal dien enplegu erregulazio espedientea

TTIPI-TTAPA

Lantegiaren ardura-dunek TTIPI-TTAPAri adierazi diotenez, harrobian leherketak egiteko debekuak indarrean segitzen duen bitartean «lanaldia murrizteko prozedura hastera behartuak daude». Hasiera batean harrobian lan egiten duten 3-5 langilerekin hasiko da espedientea eta epe laburrean leherketak egiteko debekua kentzen ez bazaie, «beharbada lantegia ixtea berriz erremediorik ez dute izanen». Gaur egun 24 langile enplegatzeko dituzten lantegiak, harrobitik marmola atera eta gero transformatu eta merkaturatzeko zereginetan aritzen direnak.

Kontuan hartu behar damaiatzeko debeku hori kentzeko eskariari buruz ebatzi zuela Gobernuak. Ebazpen horretan aipatu debekua kentzearen kontra egin zuten, leherketekin segituz gero Alkerdi eta Berroberriko lezeak kaltetzeko arrisku bizia dagoela argudiatuz. Enpresaren arduradunek diotenez, leherketen sistema ere «legezkoa» da eta «beharrezkoa» ustiapenarekin segitu ahal izateko.



ARGAZKIA: ARTXIBOA

Urdazubiko harrobitik marmol gorria, gorrixka eta grisa ateratzen dute. Hamar milioi tonako erreserba dagoela dio enpresak.

ADOSTASUN BATEN BILA

Nafarroako Gobernutik egindako deiari erantzunez, auzi honekin zerikusia duten alderdi guztiak elkartu dira lehen aldiz

Urdazubiko Udal ordezkariak, Nafarroako Gobernukoak, SOS Alkerdikoak, enpresa eta langileen ordezkariak, denak batzartu ziren Iruñean auziari aterabideren bat bilatzeko helburuarekin.

Santiago Villares alkateak berretsi egin zuen udalaren erabakia. «Marmoles del Baztanek harrobia ustiatzeko egin nahi dituen leherketekin segituz gero, herriaren ondarea hondatuko» dela argudiatu zuen, bereziki «Berroberria eta Alkerdiko lezeak (babestuak eta katalogatuak) eta baita inguruan dauden bertze lezeak ere (Zelaieta I eta III)». Bizilagunentzat ez ezik, inguruko turismo eta merkataritzarentzat kaltegarri dela gaineratu zuen. Hala ere, enpresak 2003an eskuratu zituen ustiapen-baimenak indarrean daudela ekarri zuen gogora, betiere, orduan ezarritako baldintzak betez gero. Zentzu horretan, enpresaren ustiapen proposamenak aldaketa garrantzitsua ekarriko luke lehendik zuenarekin konparatuta eta, horrexegatik, proiektu berri baten modura tramitatu behar litzateke baimena eskuratzeko.

Alkatearekin batera, Domingo Iribarren alkateordeak, eta Iñigo Imaz eta Fco Javier Varela zinegotziak osatu zuten Urdazubiko Udalaren ordezkaritza batzar horretan.

Manu Ayerdiak, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak, gidatu zuen Nafarroako Gobernuaren ordezkaritza. Alde guztiak adostasun batera iristeko borondatea adierazi zuen eta «harrobian lanean segitu ahal izateko abian dagoen espediente administratiboaren gainean erabaki tekniko-juridiko bat hartu ahal izateko, alde guztiak berriz batzartzeko deia egin zuen. Lehendakariordearekin batera, hiru zuzendari nagusik ere parte hartu zuten batzarrean (industriakoak, kulturakoak eta ondasun historikoenak).

Patxi Iriarte eta Maixus Fagoagak eraman zuten SOS Alkerdiren iritzia batzarrerera. eta azaldu zuten harrobiaren jardura-luzapen espedientea gaizki tramitatu dela euren iritziz.

Marmoles del Baztan-eko hiru ordezkariak ere parte hartu zuten batzarrean, baita LAB eta langileen bina ordezkariak.

LEHERKETAK EGITEKO DEBEKUA

Urdazubiko Udalak 2014ko uztailaren 23an debekatu zuen Alkerdiko harrobian inolako leherketarik egitea, inguruan eta ondasun historikoetan sortzen ahal zituzten kalteengatik. Geroztik, iritziz berekoa agertu da Nafarroako Gobernu ere.

BAZTAN

BESTAK → IRAILAREN 4TIK 7RA

Arraiozko bestak ospatuko dituzte asteburuan

Igande arratsean kantaldia eskainiko du Erramun Martikorenak

tzaldia Gabenarearekin.

LARUNBATA, IRAILAK 5

- 10:00etan argi soinuak.
- 11:00etan herriko xaharrendako kartajokokak eta hamaiketakoa.
- 11:30ean haurrendako arrain harrapatzea Mardeako labaderoan.
- 11:30ean plater-tiroketa.
- 14:30ean gazteen paellada (elizako gorapean).
- 17:00etan mus txapelketa (Arizti elkartean).
- 18:00etan Paxaka (herriarren arteko desafioa).
- 19:00etan herriko dantzari eta kantari ttikien emanaldia.
- 20:00etan dantzaldia Trikidantzekin.
- 00:00etatik aitzinera gaupasa Trikidantz taldearekin. Gaita joleak eta DJ Julen.

IGANDEA, IRAILAK 6

- 10:00etan argi soinuak.

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatu dituzte Arraiozen, iraileko lehen astebururako.

ORTZIRALA, IRAILAK 4

- 12:00etan altxaferoa, segidan txistulariak.
- 12:30ean haurrentzako tailerra.
- 14:00etan haurren bazkaria.
- 15:00etan haurren jokuak eta ondok txokolatada.
- 19:00etarik 20:30era dantzaldia Gabenara taldearekin.
- 20:30ean Mutildantzak.
- 21:30ean Baztan-zopak.
- 00:30etik aitzinera, kontzertua Patxuko-Nice taldearekin. Dan-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haurrek ere izanen dute ederki pasatzeko aukera bestetan.

- 18:00etan herri kirolak: Arraioz vs Basaburua.
- 20:00etan kantaldia Erramun Martikorena eta Joxe Anjelekin.

ASTELEHENA, IRAILAK 7

- 12:00etan haurrendako kamiseta margotzea.
- 12:30ean haurrendako herri krosa.
- 14:30ean Zikiro jatea

trikitilariekin eta Hauspolariekin.

- 17:00etan aulki dantza herrikoia.
- 20:00etan dantzaldia Hauspolariekin.
- 00:00etan Gaixoak gu.

 **arteka 20th**
arkitektura eta zerbitzuak



www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



ARGAZKIA: IRATI JAEN

Zikiro jatea Elbeteko frontoian.

BESTAK → BIGARREN ASTEBURUAN

Elbeteko bestak irailaren 11tik 14ra

Ortziral
arratsaldeko
txupinazoarekin
hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Elbeteko bestak ortziraletik astelehenera ospatuko dituzte:

ORTZIRALA, IRAILAK 11

- 18:30 txupinazoa eta Bonba Japonesak
- 21:00 Zopak
- 22:30 Franxixkorekin dantzaldia Posadan
- 00:00 Txopogoratzea
- Ondotik Franxixko Plazan
- 06:00 Xinger jatia

LARUNBATA, IRAILAK 12

- 09:00 diana.
- 14:30 zikiro jatea frontoian. Ondotik dantzaldia.
- 20:00 muxikoak.
- 21:00-22:00 eta 00:00-02:00 talde sorpresa
- 02:00 Tirri & Teri DJa.

IGANDEA, IRAILAK 13

- 09:00 diana.
- 11:00 - 13:30 puzgariak.
- 15:30 - 18:00 tren txutxua.
- 13:30 haurrendako bazkaria Elbeteko Posadan.
- 18:00 Baztango Dantzariak eta txokolatada.
- 20:00 Hauspolariak.

ASTELEHENA, IRAILAK 14

- 09:00 diana.
- 11:00 meza nagusia. Ondotik mutildantzak.
- 12:00 luntxa.
- 18:00 Mus eta partxis txapelketa
- 20:00 Franxiskorekin dantzaldia. Ondotik boletoen zozketa.

OHARRAK

Zikiro jaterako txartelak Elbeteko Posadan eta Karrikan daude salgai. Haurren bazkarira joan nahi duenak Posadan apuntatu behar du, baita mus txapelketan parte hartu nahi bada ere.



Hondakin berezien bilketarako 'Birziklapen Etxolak' jarri dituzte Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekabn

Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek hondakin bilketa zerbitzua hobetzeko helburuarekin, orain arte eskaintzen zen hondakin berezien bilketa zerbitzu mugikorra indartu eta *Birziklapen Etxolak* deitu dituzten bilketa puntu finkoak jarri dituzte. Modu honetan, kamioia noiz etorriko zain egon beharrean, herritarrek hondakin bereziak edozein momentutan bota ahal izanen dituzte.

Etxetxo hauek etxola zaharberriak dira, berrerabiliak eta, erran bezala, finkoak izanen dira, kokatu diren lekuan egonen baitira jendeak erabiltzeko prest.

Oraingo Baztanen eta Bortzirietan jarri badira ere, urtea akitu baino lehen Malerrekabn ere berea izanen dutela aurreikusten da.

Baztango etxola Elizondon paratu dute, Jaime Urrutia karrikan hasieran, Merkatuko Plazan, esne makinaren eta arropa edukiontzien ondoan; **Bortzirietakoa** berriz, Etxalarren, herri sarrerako aparkalekuan. Beraz, bi herri horietan orain arto kamioi bidezko zerbitzu mugikorra desagertuko da.

Etxolak hainbat leihatila ditu eta horietako bakoitzean hondakin mota bat biltzeko irudia eta testua agertzen dira. Hauek dira etxolan bota daitezkeen hondakinak: bateriak, gasolio eta olio filtroak, bonbilak eta fluoreszenteak, erradiografiak, pilak, fitosanitarioak, garbiketako produktuak, telefonoak, tonerrak eta tinta-kartutxoak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, olio minerala eta landare olioak (plastikozko pote itxietan), kutsatutako ontziak, pinturak, CD eta DVDak, eta abar.

ELBETEKO POSADA
ONGI PASA BESTAK!
6 logela bainugelarekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Aste hondarretan karta
- Enpresa otorduak
- Familia bilkurak
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

BAZTAN

GIZARTEA → HAMAR URTEAN EGINDAKO INDUSKETA-LANEI ESKER JAKIN DIRA

Amaiurko gazteluaren neurriak eta ezaugarriak ezagutarazi dituzte

Museo bihurturiko inguruan izan zen abuztuaren 10ean Uxue Barkos Lehendakaria

TTIPI-TTAPA

Uxue Barkos Nafarroako Lehendakaria izan zen abuztuaren 10ean Amaiurko gazteluaren museo bihurturiko aztarnategian, eta indusketa-lanen aurreapenaren ingurukoak ezagutu zituen. Izan ere, aurtan hamar urte bete dira lanak egiten hasi zirenetik; horiei esker jakin da eraikinak zituen neurri eta ezaugarriak.

Bisitán, Lehendakariarekin batera izan ziren Ana Ollo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria, Joseba Otondo Baztango alkatea, Isaac Rekalde Amaiurko alkatea eta Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia-elkarteko idazkari nagusia. Azken bi horiek dira jarduera arkeologikoen erakunde eragileak.

Iragan otsailetik museo bihurtuta dagoen barrutiaren inguruan sarbideak eta pasabide bat eraiki dira, eta seinaleak eta panel informatiboak ere jarri dira. Bisitan, han aurkitutako objekturik bitxiak ikusi ahal izan zituzten. XVI. mendearen hasierakoak dira, Nafarroako konkistaren garaikoak, orduan izan baitzen gaztelua inoizko ezagunen.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Uxue Barkos lehendakaria, Ana Ollo kontseilariarekin eta Baztan eta Amaiurko alkateekin, Aranzadiko idazkari nagusiaren azalpenak aditzen. Behean, gazteluaren aireko ikuspegia.

Ezpata oso bat eta burdinurtuzko sei kanoi-baldia dira.

2.000 OBJEKTU

Duela hamar urte hasi ziren indusketa-lan hauek eta tokiko lehen jarduera arkeologikoa dira. Lan horri esker, gaztelua nolakoa zen jakin izan da. Dorre bat zegoen erdialdean, bost dorre erdizirkulardun harresi batek inguratu-ta. Horiek osatzen zuten XII. mendean eraikitako hasierako barrutia, 1.000 metro koadro inguruko azalerakoa. Halaber, bertze defentsa-harresi bat ere aurkitu da, hurrengo mendeetan eraikitakoa, lau dorre eta pasabidea zituena. 6 eta 8 metroko altuera zuten harresiek.

1512. urtean, Nafarroako konkistaren ondoren, behin betiko itxura hartu zuen gazteluak, hau da, artilleriarako prestatutako bas-



toiarena. Horretarako, kanoiak gordetzeko harritzko bi kubo eraiki ziren, baita uharka bat ere.

Arkeologia-lanei esker, 2.000 objektu inguru erauzi ahal izan dira; Erdi Arotik hasita konkistaren garaira artekoak. Gezien puntak, lantzen puntak, txanponak, jantzien zatiak eta eguneroko bizimoduarekin lotutako bertze elementu batzuk, zurezko urontzi eta kaiku bat, erraterako. Egoera onean

mantendu dira. XVI. mendeko objektuen artean, jaurtigaiak eta jaurtigai handien hondarrak ere aurkitu dira.

Indusketa-lanen kanpaina egiten da urtero, abuztuko lehen hamabostaldian eta gainerakoan, mantentze-lanak egiten dira. 40 boluntario inguruk gauzatzen dute kanpaina, Aranzadiko teknikarien gain-tu begiradapean. Urteotan, 500 bat pertsonak lagundu dute lanetan.

HISTORIA

Amaiurko gazteluaz

TTIPI-TTAPA

Amaiurko gaztelua XII. mendean eraiki zen, eraikin militar gisa hasieran, Zugarramurdira eta itsasoko portuetara zihoan bidea kontrolatzeko. Dozena bat gizonen soldadu talde bat zuen. Nafarroaren konkistaren amaiera ekarri zuen Noaingo 1512ko guduaren ondoren, gazteluak garrantzi estrategiko handia izan zuen, Nafarroa Beheretik gertu zegoenez, han hartu baitzuten babes Henrike II.a Albretekoaren aldeko nafarrek. Hori dela eta, Gaztelako monarkek aurrekontu handi bat bideratu zuten gaztelua artilleria-dun defentsarako bastioi bihurtzeko.

1521eko irailean, Henrike II.aren aldeko gaztelua konkistatu zuten. 200 nafarrek osaturiko soldadu taldea geratu zen, Jaime Vélaz de Medranoren agindupean. Han egon ziren 1522ko uztaiera arte. Orduan, 10.000 gizonen osaturiko Gaztelako armadak gaztelua setiatu zuen. Hainbat eraso-oren ondoren, 22. egunean, errenditu egin zen gazteluko soldadu taldea. XVII. mendean, bertze bastioi bat eraiki zen toki berean eta, XIX. mendean, ermita bat ere eraiki zen. 1922ko ekainaren 22an monolito bat inauguratu zen, hura defendatu zuten nafarren oroimenez. 1931n lehertu egin zen monolitoa, eta, 1982an, berreraiki eta berriz inauguratu zen.

GIZARTEA → EKAINAREN 19AN AURKEZTU ZUEN

Aroztegiako sustatzaileak Garbiñe Elizegi alkate ohia salatu du

Kontrako iritzien jazarpen onartezina eta errepresio ideologikoa ikusten du EH Bilduk

TTIPI-TTAPA

EHBilduk jakinarazi duenez, Palacio de Arozteguía S.L. promotorkak Garbiñe Elizegiri, Baztango alkate ohiari, «Aroztegiako aferan herritarren interesak defenditzeagatik eta kritika politikoa legitimoa egiteagatik auzitegietan 36.000 euroko salaketa» paratu dio. Salaketa ekainaren 19an aurkeztu zuten.

EHBildutik argi utzi nahi izan dute «Lekarozen inposatu nahi den udalez gaindiko plan sektoriala proiektu urbanistiko espekulatzaila dela eta herritarren interesen aurkakoa. Lekarozko herritarrak zein Baztango gehiengo soziala proiektu honen aurka agertu da behin eta berriz». Hala ere, Nafarroako Gobernuak enpresaren eskariz udalez gaindiko plan sektorial bezala tramitatzea erabaki zuen eta EH Bilduren oharrak dioenez, «Garbiñe Elizegik, alkatea zen heinean, po-

sizio hori eztabaida demokratikoaren barnean defenditu izan du».

«ADIERAZPEN ASKATASUNAREN AURKAKOIA»

EHBilduren arabera, «eskandalagarria da eta adierazpen askatasunaren aurkakoa erabat, enpresa pribatu batek kritika politikoa egiteagatik herritarren ordezkari bat salatzea eta auzitegiak eskaera hori bideratzea». Enpresak bere «ohorearen» aurkako adierazpenak ikusten dituen tokian EHBilduk kontrako iritzien jazarpen onartezina eta errepresio ideologikoa ikusten du. «Palacio de Arozteguía, S.L. bere interesak defenditzeko eta proiektuaren kontrako iritzi arrazoituak isilarazteko auzitegiak erabili nahi izatea guztiz onartezina da», EHBilduren arabera.

«Mozala legea imitatu nahian, afektatutako herrien eta herritarren ginetik huts egin duen eredu ekonomiko bat inposatu nahi duten horiei eta salaketekin isilarazi nahi dituzten horiei argi utzi nahi diegu lanean jarraituko dugula herritarren interes orokorrak defenditzen interes espekulatzailen ginetik», dio akitzeko, EH Bilduren oharrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzak txertatzeko lantegia Elutseko mindaitze komunalean

Hazitik Hozie elkarteak antolaturik abuztuaren 8an zuhaitzak txertatzeko lantegi edo tailerra egin zen Elizondo eta Lekaroz arteko Eluts parajearen. Aurten neguan elkarteko kideek Eluts izeneko inguruan 200 txertaka edo patroï baino gehiago landatu ondotik, eta, modu horretan, mindaitze komunalean egitasmoa abiarazi, larunbatean, txertaketan hamar sagar barietate eta malkoa udare barietatea txertatu zituzten. Eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere dozena bat lagun bildu ziren eta aski aberasgarria izan zen. Sagar barietate hauek txertatu ziren: Urte sagarra, udare sagarra, San Juan sagarra, anis sagarra, burdintxe, ama sagarra, Santio sagarra, manotea, Narbarteko sagarra eta erreka sagarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erratzuko merenderoa konpondu dute

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Enplegu Babestuko langileek, iazko uholdeen ondorioz hondaturiko Erratzuko Merenderoa konpondu dute eta erabiltzeko prest dagoela jakinarazi dute. Argazkietan, lehen nola zegoen eta orain nola utzi duten ageri da.

UDALAK EGIN DITU

Pistak irekitzeko eta mendi-lanak egiteko adjudikazioak

TTIPI-TTAPA

Basabarren mendiko pista irekitzeko eta hainbat tokitan mendiko lanak egiteko adjudikazioak egin ditu Udalak.

Modu horretan Mariezkurren Basabarreko pista 67.065 euroren gainetik irekitzeko ardura hartu du. Bertzalde, Lanalekonek 33.616 euroren gainetik hainbat mendiko lan egingo ditu: Ameztioko, Kaltzadako zokoko eta Irrioko landaketen garbiketa; Aritzakungo landaketa zahar batean hiru kilometro alanbreren bil-

keta; Belateko bazkalekua hobetzeko desbrozatzeko lanak eta LICaren barnean diren zuhaitzen kapeztatzea. Lanak abuztua eta urria artean egin behar dituzte.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak lanek sortutako gastuen %45a hartuko du bere gain eta gainerakoa Udalek ordaindu beharko dute. Nafarroako Gobernuak diru-laguntza deialdia berandu argitaratu duela aipatzekoa da eta, horregatik, lanak emateko prozedura eta lanak egiteko denbora aski estua da.

BAZTAN

GIZARTEA → BISITA GIDATUAK ABUZTUAN

Bertako ekoizleen produktuak ezagutzera eman ditu Baztangoa Ekimenak

“Hemen, hemengoaz gozatu” lelopean, bertako produktuak dastatzeko aukera ere eskaintzen dute

TTIPI-TTAPA

Udaberriko Azokaren inguruan antolatutako Gasnaren Astea posiboki baloratu eta gero, Hazitik Hozie elkarrekin esperientzia udan zehar errepikatu eta zabaltzeko interesa azaldu zion Udalari. Kontraste batzuk burutu eta gero, esperientzia egiteko ahalegina egitea erabaki zen. Horren ondorioz, deia luzatu zitzairen, batetik, Baztango nekazaritzako elikagaien produktuen ekoizleei, eta bertzetik, Baztango jatetxe eta alojamenduei elkarlanean aritzeko Baztango produktuak bisitarien

ezagutaraziz eta kalitatezko bertako produktuekin lan egitearen balio erantsia eskainiz. Honela, Baztangoa ekimena aurkeztu zuten Elizondon, Baztango udal ordezkariak eta ekoizleak eta Cederna-Garalurreko kideak bertan zirela. Lan honen ondorioz, honako ekintzak burutzen ari dira:

Bertako produktuak ezagutzeko bisitaldiak antolatu: Baztango 4 ekoizlek abuztuan bisitaldiak antolatu dituzte eta, horrenbidez, bisitarien produktuen ekoizpen prozesua ezagutzeko aukera izan dute.

Bertako produktuak identifikatzen dituzten distintibo eta leloa: “Hemen, hemengoaz gozatu” lelopean bauristak bai bertakoek Baztango hainbat jatetxe eta alojamenduetan bertako produktuak dastatzeko aukera dute. Ekimenean parte hartzen duten establezimenduek kartelak eta pegatinak erabili dituzte modu errazean tokiko



UTZITAKO ARGAZKIA

Udal agintariek eta ekoizleek, Cederna-Garalurreko ordezkariekin batera egin zuten Baztangoa Ekimenaren aurkezpena Elizondon.

produktuak erabiltzen dituztela adierazteko.

Tokiko produktuak promozionatzeko jarduerak burutu: bisitarien tokiko produktuak aisialdi aukerarekin batera eskaintzeko Baztango produktuen azokak antolatuko dira. Baztangoizaren kasuan, iraila-

ren 20an Amairuko Errotaren Eguna litzateke hitzordua eta Elizondon irailaren 27an, Behi Azimenda Piriniotarraren Lehiaketaren baitan.

Baztangoa ekimen honetan parte hartu duten eragileek uda pasatzen ondoren lan honi jarraitzea eman nahi diote

sare lana indartuz. Horretarako, ezinbertzeko ikusten dute sektoreen arteko elkarlana eta trukaketak sustatzea. «Baztango garapena etorkizunean bertako produktuei eta ekoizpenei lotuta egin beharko genuke», aipatu zuten aurkezpenean.

HORRELA ARGITU DU UDALAK

Beira biltzearen ardura Ecovidrio enpresarena da

TTIPI-TTAPA

Zenbait herritan beira edukiontzia beteak eta zenbaitzuk gainezka egon dira udako aste batzuetan eta herritarrek beira bilketa zerbitzua maiztasuna haundiagoa izan zedin eskatzen zutelako prentsan agertutako artikulu batek. Udaletik herritarrei jakinarazi nahi diete zerbitzu hau ez dagoela bere esku, Ecovidrio enpresaren esku baizik. «Estatu mailako Ecovidrio enpresa da beira bilketaren arduraduna eta honek azpikontrataturiko enpresa baten bidez egiten du bilketa» dio Udalaren oharrak.

Nafarroako Gobernuak Ecovidrio enpresarekin sinaturiko hitzarmen batek zehazten ditu bilketa honen nondik norakoak. Ecovidrio arduratzen da zonaldean beira kontene-

doreak jartzeaz, baita hemen bildutako beiraren bilketa eta tratamendua ere. Hau honela izanik ere, Udalak hondakinen kudeaketa egokia bermatze bidean bitartekari lanak egiten ditu, «beiraren bilketa zerbitzu egokiak gainerako hondakin frakzioen bilketan eragin zuzena duela».

Azken hilabeteotan Ecovidriok azpikontrataturiko enpresa aldatzearekin batera hainbat arazo izan dira, eta ez Baztanen bakarrik, «batez ere udan», baina konpontze bidean daude.

Udalak aunitz eskertzen ditu jendearen kexa, abisu eta jakinarazpenak, «guzti hauek arazoaren dimentsioaren berri eman digutelako eta Udalak berak Ecovidrio enpresari behin eta berriz egin dizkien erreklamazioei indarra eman dietelako».



ARKUPE

Gozotegia · Txokolategia

Elizondo-Irurita (Nafarroa) · Tfn. 948 45 23 93
info@arkupegozotegia.com · www.arkupegozotegia.com



GIZARTEA → OPOSIZIOAREN SALAKETEI

Aroztegiak ez zuela babes berezirik erantzun du alkateak

Sepronaren edo Ur Konfederazioak ez omen du salaketarik jarri

TTIPI-TTAPA

Urdazubi Elgarrekin oposizioko udal taldeak aroztegia botatzearen inguruan egindako salaketen aitzinean, Santiago Villares alkateak erantzun du erranez erai-kin hori «ez dela Nafarroako kultur ondarearen zati bat eta ez duela inolako babesik Hiri-gintza Planean, beraz, zaharberitzeko, handitzeko edo aldatzeko aukera eskaintzen du».

Alkateak aipatu duenez, «egia da zaharber-

ritze proiektu bat idatzi zela, baina lanak egiten hasterakoan, harrizko hormek eta zimentazioak ez zutela eraikinaren egituraren segurtasuna bermatzen ikusi zen». Zimentazio berria eman behar zaitzaenez, aroztegi zaharra bota egin behar izan zen, «baina bere lerro nagusien gainean egin da eraikin berria».

Aroztegiko eraikin baldintzak «arras po-break eta interes arkitektonikorik, historikorik eta etnografikorik gabeak» zirela ere azpimarratu du Urdazubiko alkateak eta horren inguruko dokumentazio grafiko ugaria omen dago. Aroztegiko osagai interesgarri bakarra ate baten ingurua



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Euriak ere ez zuten zapuztu VIII. Burdinaren Eguna

Burdinaren Eguna giro ederrean ospatu zen agorrilaren 8an, nahiz eta euria gogotik egin zuen. Zortzigarren edizio honek gaiarekin lotutako jarduerak egitarau zabala izan zuen. Bertzeak bertze, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzestu zen. Izan ere, garai batean, XIX. mende hasiera arte edo, Bizkaiko meatzeetatik Monasteriora eramaten zuten, eta abadeari ematen zitzaion, urrezko moneta batzuen truke. Goizetik artisautza azoka izan zen plazan, 35 bat eskulangilerekin. Axular baseritik herrira idiek tiratutako gurdi batean zetorren burdin mineralaren segizioa plazara ailegatu eta han itxi zuten tratua Bizkaiko benakeroek eta Salbatore monastegiko abadeak, duela mende batzuk egiten zuten moduan. Handik buruzareetan eraman zuten burdina monjeek. Zelaieneko Javier Larraldekin egin zuen monastegiko abadearen antzezpena. Olagizonak, berriz, Zugarramurdiko Sansineko Javier Zubillaga eta Urdazubiko Martin Villares izan ziren; Jose Antonio Agirre, Juan Ramon Otheguy, Jose Luis Gomez, Juan Luis Sarratea eta Mikel Beola mojeak. Pobeñatik etorritako 80 bizkaitar ere izan ziren Urdazubin. Plazako antzezpenaren ondorioz, Mutildantza dantzatu zuten Urdazubiko historiaren berri eman zuten Fernando Hualdek eta Santiago Villares alkatearekin batera, opari bat eman zioten Jokin Etxart gaur egungo Fabaren Erregeari eta omenalditxo eskaini zioten besta hau sortu zuen Itsas Begia elkarteari.

zen, harriz egina eta eraikuntzaren urtea zizelkatua agertzen zuena (1715). Hain zuzen, hau berreskuratu eta eraikin berrian ere ezarri dute.

Alkateak adierazi duenez, «bota den ber-

tze eraikina elurtegia da, eta ez kartzela, eta horrek ez du Apezaren Etxea bezala ezagutzen den etxean inolako eraginik izan». Azkenik, alkateak azpimarratu nahi du Udalak ez due-

la Sepronaren edo Ur Konfederazioaren inolako salaketarik jaso, «bakarik ikuskatze-akta bat» eta salaketa bakarra Urdazubi Elgarrekin taldeak egindakoa dela adierazi du.

UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA

16 urte baino gehiago baduzu eta TTIPI-TTAPA banatzen den eremuan bizi baldin bazara, erakutsiguzu udako zure argazkirik dibertigarri, polit eta kuttunena. Saria zuretzat izan daiteke!

Lehiaketaren oinarriak ERRAN.EUS webgunean dituzue Animatu eta parte hartu!

EPEAK

1. Argazkiak kargatzeko ERRAN.EUSen: irailaren 10a bitarte
2. Bozkatzeko ERRAN.EUSen: irailaren 11tik 20ra
3. Irabazleak nortzuk diren: urriaren 1ean

1. SARIA
Egonaldia Isaban,
2 gau 6 laguntzat



TXAPATERA
apartamentuak
Tel. 630 709 764
www.isaba.info

2. SARIA
4 laguntzako
otordua



ZALAIN jatetxea
Tel. 948 631 106
www.zalain.com

ZOKKETA
2 sarrera berezi
bikoitz



IRRISARRI LAND
Tel. 948 928 922
www.irrisarriland.es

ZUGARRAMURDI

KULTURA → UZTAILAREN 6AN

Pottoka bideko seinaleak berriro dituzte

Zurezko oholetan margotu dute pottoka

Margari eta Koro

Sara, Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeak elkartzen dituen Pottoka bideko bidegurutzak batzuk zalantzak sortzen zituztela, eta gainera lehengo seinaleak borratuxeak zirela, seinale berriak eman dituzte. Lehengoak batez ere harrietan marraztutakoak ziren, oraingoak, berriz, zurezko oholetan daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguraldia ez da oztipo izan bestetan, primeran joan dira!

Lehenbiziko bi egunetako euria kenduz, arras ongi joan dira bestak. Ekitaldi aunitz azpimarratu litezke. Pilota txapelketa txapeldunak Frantxixko eta Mikel Zenoz izan ziren, eta azpi-txapeldunak, Kaiet eta Ioritz Madariaga. Iker eta Mari erraldoiak ere harro-harro ibili dira karriketan barna, aurtun buru berriak estreinatuta baitituzte. Toomatxa herriko musika taldeak ere kontzertu polita eskaini zuen. Jendea gustura aritu zen beraiekin kanta eta dantzan, eta errepertorioa dexente eta ongi entsaiatua daukatela erakutsi zuten. Joko-besta eta ahatejokoak, beti bezala arrakasta izan zuten, baina aurtun parte-hartzaile guti izan dira. Besta egun bat gehiago emana zen aurtengo programan: abuztuaren 20an, zikiro-jateko baxerak garbitzeko. Deialdi berezia egin da aurtun, lan handia izaten baita, 800 lagunendako bazkari baten ondotik plater, baso, kutzare, e-ltze, eta abar aunitz izaten baita garbitzeko.

OSASUNBIDEA

«Ez erosi botikarik legez kanpoko webguneetan!»

TTIPI-TTAPA

Osasun Departamentuak prebentzio kanpaina bat hasiko du legez kanpoko webguneen bidez botikak erosteak duen arriskuaz ohartarazteko.

Azken urteotan, legez kanpoko edo faltsifikatutako botiken merkaturatzea izugarri hazi da mundu osoan, eta internet da produktu horiek hartzeko bide nagusia.

Kanpainak helburu bikoitza du: alde batek legez kanpoko edo faltsifikatutako botikak duten arriskuaz ohartaraztea, eta bertetik, webgune seguruak identifikatzen duten logotipo berria ezagutaraztea.

Xede horrekin, Nafarroako osasun zentro eta farmazietan eskuorriak banatuko dituzte «Ez erosi botikarik legez kanpoko webguneetan. Oso txarra da zure osasunerako» goiburuarekin.

Internetez saltzen den botiken erdia baino gehiago faltsua dela uste da. Haren arriskua da, agian ez dutela beharrezko printzipio aktiborik efektua egiteko edo zuzenak ez diren dosiak dituztela.

Webgune horietan eskatutako botika gehienak honako taldeotakoak dira: pizgarri sexualak, esteroide anabolizanteen ustezko alternatibak muskulumasa areagotzeko, minbiziaren aurkako botikak, hipertentsioa eta hiperkolesterolemia.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3.km
 URDAZUBI

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

CARLOS
GARAICOETXEA
ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
 T. 948 581 468 M. 630 354 818

GIZARTEA → HERRIAREN HISTORIA AZTERTUZ

Senpereko etxe guztien izenak biltzen ditu Auxtin Zamorak

Herritarren laguntza galdegin du informazioa jaso ahal izateko

Franck DOLOSOR

Gutunen banaketa eta herritarren segurtasuna hobetzeko, etxe guztien zenbaketa eta bakoitzari zenbaki berezia ematen ari da Senpereko Herriko Etxea. Auxtin Zamora olerkari eta euskalzalearen arabera, «gure herrian ez ginuke, ohartu gabe, hiri giro batean sartu behar». Leku eta istorio anonimo, jendetasun gabeko zenbaki batzuetara bakarrik mugatzea ez luke nahi Zamorak eta horregatik hasi da bilketa lanean, «etxe guztiek eta kasik leku guztiek izen berezia dute gure herrian».

1.900 ETXEEN DATUAK BILDUTA

Senpereko 1.900 bat etxeen izenak edo egoe-

ra aztertzen lan sakona egin du jadanik. Hala ere, 800 bat ikustekoak ditu oraino, hiru hilabete-ko ikerketa lana nun-bait han.

«Mundua aldatzen ari dela, etxe berriak eraikitzen eta lurrak saltzen direla eta etxeen nortasuna galtzen dela», iduritzen zaio senperrari. Bere ustez, azken urteetan etxeen salerosketen kopurua handitu da eta horrek herriarekin diren loturak ttikitutu ditu. Etxeen izenen partez, gero eta gehiago zenbakiak erabiltzen dira, administrazioa laguntzeko bainan hori penagarria zaio Auxtini. Etxeen gibelean istorioa bat dagoela frogatu nahi du idazleak. Denboran etxearen izenak baliatzen ziren bertan bizi ziren lagunak identifikatzeko eta berriki arte batzuetan auzokoen lanak izaten zizuten egiazko deiturak gogoratzeko! Lehen toponimia anitz erabiltzen zuten, konparazio: "Etxeberri". Orain aldiz denetik erabiltzen da,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nomadak kirol zelaian

Uda guziz Lapurdi kostaldean agertzen den arazo handia Senpererat heldu da aurten. Ebanjelista multzo ederra kirol zelaian plantatu delarik neholako baimenik gabe. Senpererek legea errespetatzen du eta oihanean bada holako taldeak hartzeko gune bat bainan ez nomada hauen gustukoa. Auzapezak helegitea aurkeztu zuen berehala su prefeturan eta horrek arrazoina eman zion lekuak husteko epea finkatuz. Ondorioz, hamarnaka karabana eta ijitok alde egin behar izan zuten Senperetik. Halere, zombait kalte sortu dituzte senperrak ordaintzen eta erabiltzen duten kirol zelaian.

poetikoak, baina baita gizarteari edo familiari begira ematen direnak ere. Zamorak aztertu dituen Senpereko etxeen izenen %90 euskaldunak dira, baina badira gaskoiz edo arabieraz idatziak direnak ere. Etxeak bisitatzean, familiek istorioa esplikatzen diote ikertzaileari eta pozik agertzen diote zein den etxearen nortasuna. *Senpere etxez etxe obra osatzeko*, Auxtin Zamorak herritarren laguntza galdegin du eta gaiari buruz zerbait dakienari eskertuko lioke *olerkibilduma@sfr.fr* helbidera idaztea.

LANDARBASO ETA EUSKADIKO ORKESTA

Hamabostaldiaren baitan izandako saioak arrakastatsuak izan dira

Franck DOLOSOR

Donostiako hirurogeita hamaseigarren hamabostaldiak, uda honetan ospatu den musika klasiko jaialdi ospetsuak, oihartzun zabala eta arrakasta ederra erdietsi ditu Lapurdin ere, eta bereziki gure herrian. Errenteria, Lezo eta Oiarzungo gazteek osatzen duten Landarbaso abesbatzak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak musika zale frango zituzten elizan eta Larreko kultura areto berrian. Lehen aldia da maila horretako musikariak agertu direla Senperen. Mota horretako goi mailako programazioak oldar berria emanen dio kulturari gure herrian. Gipuzkoako hiriburuarekin egiten den elkarlanean lehen urratsa bertzerik ez da eta orain ideia eta proiektu berriak sor litezke Donostia 2016 ekitaldiarekin. Ea berriz ere laister belarriak goxatzeko aukera izaten dugun!



oninart
jantzi boutique

Plaza zaharra, 5 · 31770 LESAKA
T. 948 637167
oninart@oninart.com · www.oninart.com



SARA

GIZARTEA → EUSKAL TXERRIAREN GARAPENERAKO

Lau txerri parke finkatu ditu Herriko Etxeak Zuhalmendin



Bakoitzak 4 hektarea ditu eta 160 euskal zerri haztea ahabildetzen dute aire librean

TTIPI-TTAPA

Ingurumena errespetatzen duen laborantza iraunkorra landu eta garatu nahi izan du Herriko Etxeak Euskal Txerri sailaren inguruan. Desmartxa hau Aldudeko ibarrean eramana den proiektu kolektiboari lotua da. Sarako Herriko Etxeak lau txerri parke finkatzea erabaki du, bakoitza lau hektarea inguruko azalerakoa.

Orotara, parkeek ehun eta hirurogei euskal txerri haztea ahalbidetzen dute, aire librean, Zuhalmendiko gunean, Larrungo Trenetik hurbil.

Gune honen paregabeko kokapen geografikoak eta ingurumenak bai Euskal Txerri saila, baita Hego Lapurdiko Hiriguneak lurraldean bideratu duen zirkuitu laburren politika ere balorizatzea ahalbidetzen dute. Proiektuak gunearen antolaketa kontuan hartzen du, eskaintza turistiko, ludiko eta pedagogiko bat eginez. Eskaintza hau Euskal kostaldeko turistek eta Larrungo treneko ibiltariek zuzentzen zaie baita tokiko biztanleek eta ikasleek ere.

Leader Euskal Mendia programan eta Euskal Mendiko jokabide egokien gidaliburuaren desmartxan sartzan da proiektu hau. Euskal Mendiko garapen iraunkorraren kartako proiektu horrek zortzi helburu operazionalak lantzen ditu: Turismo iraunkorra antolatzea, ondare natural eta kulturala babestea eta balorizatzea, tarteko eremuak balorizatzea eta mendiko ekonomiaren eta ingurumenaren hezkuntza garatzea.

KINTOA EUSKAL TXERRI SAILAREN GARAPENA

«Kintoa» Euskal Txerri sailaren garapenean parte-hartzea da proiektu horren helburu nagusia, zirkuitu la-

